



Gehigarri Berezia:

Etxegintza

Etxe baten bila daudenek edo berria egin nahi dutenek milaka zalan-tza izaten dituzte. Kezka eta zalantza horiei argibideak emateko gehigarri berezia argitaratu dugu, profesionalen kolaborazioekin hornitua.

3 Elkarrizketa:

Xauli Aisialdi Kluba

Ezinduen denbora librean ekitaldiak antolatzen dituen taldea da Xauli Aisialdi Kluba. Ainara Aldako eta Maria Tamayo baztandarrak ari dira monitore gisara: «Ezinduak beraien etxeetatik ateratzen ditugu eta familiek libertade pixko bat izaten dute».

4 Erreportaia:

Baztan eta Bortzirietan Osasun Kontseiluak urteak bildu gabe

Osasun Kontseiluek osasun arloko langileak eta gizarteko bertze arloetako jendea harremanetan jartzea dute helburu nagusia. Malerreka eta Leitzaaldean urtean bizpahirutan biltzen badira ere, Baztan eta Bortzirietan urteak dituzte bildu gabe.

TTIPI TXARTELA: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.

Bertsolari txapelketaren finala Goizuetan apirilaren 16an

1996ko Nafarroako Bertsolari txapelketaren finala Goizuetako Lubine pilotalekuan burutu zen, argazkian ageri den bezala. Lau urte beranduago, leku berean kokatuko da final haundiko taula. Orduan, Jexux Arzallus izan zen txapeliduna. Aurten ez du parte hartuko Jexuxek, baina hau idazterakoan, Amets bere semea da apirilaren 16ko finalean aritzeko txartela segurtatu duen

bertsolari bakarra. Martxoaren 10ean hogeita sei bertsolarik hasi zuten bidea eta zortzik bertzerik ez dute bide zaila burutzerik izanen. Joan den igandean Beran egindako bigarren finalerditik lesakarren bat joanen da, sei bertsolarik herri horretakoak bai-

Tafallan hogeita sei bertsolarik hasi zuten bide zaila. Horietatik zortzi ailegatuko dira Goizuetako finalera.

tziren. Azken finalerdia igande honetan, apirilak 9, egingen da Atarrabian. Hor banatzen diren puntuekin jakinen da Goizuetako finalean kantatuko duten zortzi bertsolarien izenak. ➡ 18



AMEZTIA *jatetxe-erretegia*



Otordu goxo-goxoak egiteko



Orain erabat berritua

ASTETARTEAN

Eguneko menua eta karta

ASTEBURUETAN

Karta

Igande arratsaldetan
plater konbinatuak eta
arrainki eta haragiak brasan

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo ugariko mogleak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

armairu enpotratuen
erakusketa berria
Bittirian

ERAKUSKETA Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALTOKIA Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637 780

LESAKA



**LOGELAK, EGONGELAK, TRESILLOAK,
KUTXAK, BESAUJKIAK...**



BISITATU GURE
ERAKUSKETA

DATUAK.....

❖ **Ainara Aldako elizondarra eta Maria Tamayo arizkundarra dira Xauli Aisialdirako Klubeko arduradunak. «Gan den urtean hasi ginenean hirugarren monitorea bat eta boluntario batzuk ginen. Batzuk utzi zuten eta bertze batzuk sartu egin dira».**

❖ **Baztan eta Doneztebeko ezindu sikikoei batzuekin ekitaldiak egiten dituzte asteburuetan. «Bederatzi lagun beti etortzen zaizkigu eta ateraldietan gehiago apuntatzen dira».**

❖ **Bidaiak, -Jaz Cavarcelona- eskulan tailerak, antzerkia Hamabi Ordu Eskuaraz bestan, beraien berenduak prestatu... dira iaz egindako ekitaldi batzuk.**

TESTUA:
AITOR AROZENA



Asteburuetan ezindu sikikoei lan egiten dute Xauli Aisialdi taldeko Maria Tamayo -zutik, ezkerretik lehena- eta Amaia Aldakok -totorika, erdian-.

✍️ **Ainara ALDAKO eta Maria TAMAYO Xauli Aisialdi Klubeko kideak**

“Asti libre betetzea denontzat zaila bada, ezinduentzat gehiago”

ZER DA XAULI AISIALDIRAKO KLUBA ETA ZEIN DA BERE HELBURU NAGUSIA?

Denbora libre elkarrekin egoteko eta gustora egoteko probetxuen jendea biltzen gara klubean. Helburu nagusia, berriz, dibertitzea da, denbora libre ongi pasatzea. Bertze helburu batzuk ere lortzen dira bidenabarkoan; ezinduak etxeetatik ateratzea, beraien familiek libertate pixko bat izatea ordu batzuetan... Familiek badakite pertsona hauek non dauden eta esku onetan daudela. Denak gustora egotea lortzen dugu.

NOLA HASI ZINETEN LAN HONETAN?

Duela ia hiru urte ezinduen hezitzaile ikastaroa egin genuen haserako hiru monitorek. Mundu horretan sartu ondotik, Baztan aldean ezinduen denbora librerako zerbaitegiten ahal zela pentsatu genuen. Europatik dirulaguntza etorri zen eta honela hasi zen dena. EUROPAKOAZ GAIN BERTZE LAGUNTZARIK IZAN DUZUE?

Gan den urtean hori izan zen haundiena. Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Osasun eta Gaztedi eta Kirol Departamenduetatik ere

etorri zen zerbaitegiten Europari ez zaio eskatzen ahal, proiektu berriak bakarrik ematen baitu. Horregatik ANFAS erakundearekin akordioa lortu dugu. Beraiek lokala eta tailerren materiala jartzen dute eta Xaulik monitorea eta garraio lanak. Baztango eta Doneztebeko Udalarekin ere solastuko dugu. POXKONEAK LAN ARLOAN EGITEN DUENA ZUEK DENBORA LIBREAN OSATU NAHI DUZUELA ERRATEN AHAL DA?

Guk ez dugu Poxkoneko jendea bakarrik bilatzen, Poxkoneatik kanpo ere nahi duen guziarentako zabalik dago. Baztanen aisialdiko orduak betetzea zaila da jende guziarentzat eta ezinduentzat oraindik zailagoa. Orduan, asti

libreko ekitaldi horiek eskaintzea eta antolatzea da gure asmoa. Gauzak ematen ez badiezu, aunitan ez dakite eskatzen. Xauli aisialdirako klubak zubi lan hori egiten du. BOLUNTARIOAK LORTZEZ DA ERREXA IZANEN, EZ DA?

Zaila da boluntarioak aurkitzea eta hori orain gure arazorik haundiena: jendea behar dugu horrelako pertsonekin lan egiteko. Gure asmoa zabaltzea da eta jende gehiago etortzea, baina bi pertsonentzat bakarrik lan haundia bilakatzen da. Ez du denbora aunitz kentzen, astean bi ordu bakarrik galtzen dira, larunbat arratsaldetan, eta horren trukean aunitz ikasten da, arras esperientzia aberasgarria bizitzen da.



OSASUN KONTSEILUAK

Baztan eta Bortzirietan urteak dituzte bildu gabe

Zonaldeko Osasun Kontseiluek osasun arloko langileak eta gizarteko bertze arloetako jendea (udal ordezkariak, Eskola Kontseiluetako kideak, sindikatuak edo elkarteak, bertzeak bertze) harremanetan jartzea dute helburu nagusia. Nafarroako Gobernuaren definizioaren arabera, parte hartzeko erakundeak dira. Lehen, Osasun Zentro eta kontsultetako zuzendariaren eta erizaintza arduradunaren izendapena proposatu edo ordutegia onartzen ahal zuen, baina orain Nafarroako Gobernuaren esku daude erabaki hauek.

TESTUAK: **AITOR AROZENA**
ARGAZKIAK: **ARTXIBOKOA**

Osasunari buruzko informazioa elkar trukatatu eta ekimen berriak proposatzen ahal ditu Osasun Kontseiluak. Arantxa Zabala, Nafarroako Iparraldeko Zuzendariordetzako erizain-burua-
ren erranetan «Osasun Zentroetan lan egiteko moduaz informatzen da eta proposamenak biltzen dira. Nolabaiteko transparentzia ematen dio Osasun Zentroaren funtzionamenduari. Parte hartzeko erakundea da».

Osasun Kontseilua zonalde bakoitzeko populazioaren arabera osatzen da. Eskualde bakoitzeko bortz udal ordezkari, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko ordezkari batek, Osasun Administrazioako ordezkari batek, Osasun Zentroko zuzendariak eta bi langilek, enpresari eta sindika-

tuetako bina ordezkari, Eskola Kontseiluetako ordezkari batek eta bertze elkarte batzuetako kideek dute Osasun Kontseiluan parte hartzeko eskubidea. Lehendakari kargua, udal ordezkarien artean aukeratzaren denak betetzen du.

Berez, araudiaren arabera, hiru hilabetetik behin bildu beharko litzateke Osasun Kontseilu hori. Leitzaldea eta Malerrekan urtean pare bat aldiz biltzen da Kontseilua, baina Baztan eta Bortzirietan urteak dituzte bildu gabe, Arantxa Zabalak onartu duenez: «Donezteben eta Leitzan bai, egiten ditugu honelako kontseiluak». Gaiak ere, ezberdinak izaten dira lekuaren arabera, Arantxa Zabalak dioenez: «Denetan Osasun Zentroaren urteko helburuei eta lan dinamikari buruz solasten da. Esate baterako, Osasun Zentruan zein zerbitzu dau- den eta zerbitzu horiek zuzen nola

erabili, gauza bera egiten da zerbitzu berriren bat jartzen bada, horren informazioa zabalitzen da. Osasun eta eritasun arazoetaz ere hitzegiten da, eta batzutan zein neurri hartu behar diren, eta elkar lana egitea ere proposatzen da. Gero, lekuan lekuko arazoei buruz aritzen gara: Batzuk, fisioterapia edo ginekologia jarri nahi dute edo emakumeen zerbitzuak hurbildu nahi dituzte, urruti daudelako... Batzutan herritarren kolaborazioa ere eskatzen da, osasuna denon gauza delako, denon artean zaindu behar delako. Beraz gaiak oso zabalak izan daitezke».

Osasun Kontseiluko kideak bere ardurak ere baditu, erraterako, herritarrei azaltzea zer den Osasun Kontseilu hori, zeintzuk diren partaideak, bileretan solasten dena herritarrei ezagutzera ematea, herritarren kezak edo arazoak kontseiluan azaltzea eta, azkenik, ordezkaten duten erakundeetan ere osasun arazoetaz informazioa jaso eta ematea.

Osasun Kontseiluek, berez, ez dute erabaki ahalmen handiegirik, baina Arantxa Zabalaren ustez beharrezkoak dira: «Partizipazio mota bat da. Lekuan lekuko kezak azaltzeko eta biltzeko baliagarria da». Iritzi beretsukoak dira galdetu ditugun mediku eta udal ordezkariak ere. Jose Luis Etxegarai Lesakako alkatearen eta funtzioetan



Osasun Zentroaren eta gizarteko sektore ezberdinen (udal, eskola, lantegi, gizarte zerbitzu...) arteko harremana bideratzeko erakundea izan beharko luke Osasun Kontseiluak.

Bortzirietako Osasun Kontseiluko lehendakariaren ustez, «botere handiegirik izan gabe ere, positiboa izan litzateke Osasun Kontseilua noizbehinka biltzea. Solastea beti ona izaten da». Miguel Iabar, Arizkungo medikua-ren iritziz, udal ordezkariak eman beharko lukete bilerak deitzeko lehen pausua.

Kontseilua bildu gabe Baztanen 15 urte eta Bortzirietan 3 urte

Kontuak kontu, guttitan bil-

tzen dira Osasun Kontseiluak. Leku batzuetan, inoiz ere ez. Baztanen ez omen da behin ere Osasun Kontseilua osatzeko tradizioz izan eta orain zaila izanen da dinamika hori aldatzea, nahiz eta saiakeraren bat egin den azken urteotan. Bortzirietan ere, orain dela hiru urte egin zen bat eta geroztik ez da gehiago egin. Jose Luis Etxegarai Lesakako alkatearen erranetan, gorabeheraren bat izan zen eta orain arte Bortzirietako Udaletan eta bertze elkarteetan ez da

inor izendatu Osasun Kontseiluan ordezkari izateko. Halere, berriz ere biltzeko intentzioa dute: «Eskutitzak bidali diezkiegu Bortzirietako elkarte ezberdinei eta apirilaren 7rako Osasun Kontseilurako ordezkariak hautatzea eskatu diegu. Gero, lehenbailehen bilera deituko dugu».

Herriko Etxeek normalean Osasun Zentroko zuzendariarekin solasten dute eta suertatzen ahal diren arazoei zuzenean irtenbidea saiatzen dira, bilerarik deitu gabe. ■

✍ Miguel IABAR *Baztango Osasun Zentroko zuzendaria*

«Osasun Kontseilua biltzea arras positiboa da, baina horretarako udal ordezkarien borondatea behar da»

Baztanen hamabortz urte dira Osasun Kontseilua biltzen ez dela. Ez da beharrezkoa ikusten?

Osasun Kontseilua guztiz beharrezkoa dela iruditzen zait. Duela bizpahiru urte Osasun Zentrotik saiatu ginen Baztanen kontseilua berrirori biltzen, elkarte ezberdinetako ordezkariak aukeratu ziren, baina azkenean, ez zen Kontseilua osatzea lortu. Guztiz positiboa izan litzate-

teke noizbait biltzea, baina bileran egoteko borondatea behar da. Kontseiluaren zutabe nagusia udal ordezkariak dira eta hortik hasi beharko genuke lanean. Guk, gure alde-tik, borondate osoa dugu.

Zein izan beharko litzateke Osasun Kontseiluaren bete-behar nagusia?

Informazioa elkar trukatzeari da Osasun Kontseiluaren eginkizuna. Osasun Zentroari ari garenok, barne funtziona-

mentuaren eta dinamikaren berri eman kanpoan daudenei, eta kanpokoek bere zailtasun eta premien berri eman Osasun Zentroari edo, orokorrean, osasungintzan ari direnei. Harreman hori bideratu beharko luke Kontseiluak eta harreman horren bidez hobetu egiten da Osasun Zentroaren funtzionamendua.

Baztanen Osasun Kontseilurik ez dagoenez, nola bideratzen da harreman hori?

Ez pentsatu Baztan edo Bortzirietako kasuak bakarrik direnik Nafarroan. Leku batzutan arras ongi funtzionatzen dute Osasun Kontseiluek eta bertzeetan ez. Leku aunitan ez dago Osasun Kontseilurik. Hori gabe nola egiten den? Bada, denetik dago. Nola edo hala funtzionatzen dugu... Herriotan zuzeneko harreman handia dago mediku-erizain eta gizarteko bertze sektoreen artean.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91
Internet:
<http://www.topagunea.com/ttopi-ttapa>
e-mail:
ttopi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arozena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arozena, Asier Gogortza.
Berriemaileak: Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txopereña, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogortza.
Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra...
Inprimategia: Gertu.
Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria2.200 Pta.
Ipar Euskal Herria160 Libera
Europa4.000 Pta.
Amerika16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNeko GAIA

Moda desfileak puri-purian

Hemen ditugun arropa eta osagarriak ezagutaraztea zen helburuetako bat



Amaia APEZETXEA
Amaia ileapaindegia

Egia erran lehen-dabiziko urtea izanik antolatzaileak hagitzen kontengau-de Arantzan egin zen desfilearekin. Balantze positiboa egin dugu, eta arrot gustora gelditu gara, beharbada ez genuelako horrentzertze jende espero. Antolaketa lanetan Bortzirietako komertzio eta zerbitzu pila bat aritu gara elkarrekin. Bakoitzak beuren arropak eta produktuak utzi dizkigute... Dena den, gero koordinazio lanetan hiru lagun ginen: Berako Joserra Lopez, jendea abisatzen eta aritu dena, Iratxe Huarte Elizondokoa, modeloei nola ibili behar den eta erakusten ziena, eta ni neroni. Hemen inguruan ditugun arropak eta osagarriak ezagutaraztea zen desfilearen helburuetako bat. Jendea kanpora erostera joan beharrean, bertan gelditzea, edo behinik behin ezagutzea hemen zer dagoen. Ni bederen harritua gelditu nintzen zenbat gauza ditugun arropetan eta gainerakoetan, eta pentsatzen dut publikoari ere igualtsu gertatu izanen zitzaiola. Nere ustez desfilea agertu zen jendeak bazuen interesa erakutsi ziren jauntzietan, baina baita jakin-min edo morbo pixko bat ere.

Jendeak uste du ferien helburu bakarra saltzea dela, eta ez da horrela



Elena ERASO
Mari Cruz Ientzeria


Joan den igandean egin zen Almandozko feriarren hirugarren edizioa, eta berrikuntza aunitze-kin gainera. Feriari bixitasuna emateko beharra ikusi genuen, monotonian ez erortzeko. Elizondoko antzerki talde bat aritu zen publikoarentzat, dantzari bat ere bai, eta gero desfilearen ibilbidea aldatu egin dugu. Egiten diren gauza guzietan artean desfileak erakartzen du publiko gehien, feria guzietan gertatzen den bezala, baina stand desberdinetan ere ibili da jende dexente. Nik uste desfileen kontua aktualitate handikoa dela. Telebistan, egunkarietan, merkatal gune handietan... berriki Iruñeara ekarri nahi izan dute Cibeles pasarela. Beraz, hemengo jendearen gogoia ere kontu hoietan dago. Bertze maila batean den arren, gustoko dute horrelako desfileak ikustea. Bertzalde, jendeak uste du ferien helburu bakarra saltzea dela, eta ez da horrela. Erakutsi nahi da lehenagoko "herriko dendatxo" historiara pasatu zela, eta argi utzi hemengo komertzioak ere egunean gaudela, konpetitzen ahal dugula, ez dagoela beti kanpora joan beharrik.

Gehienbat ezkondu behar duen jendea eta hoiien familia etortzen da feriarra



Mari Jose ZOZAIA
Yolan ileapaindegia

Joan den urtean Ezkongaien Ferian ama-besoetakoaren eta haurren arropa sartu genuen, baina aurren berriro ezkontzan zentratzea pentsatu dugu soilik, bertze arropak alde batera utziz. Ezkongaien feria Irundik etorri zitzaigun eskualdera. Konturatu ziren hemengo jendea ezkontzeko arropa erostera Irunera joaten dela, eta honat etortzea pentsatu zuten euren aukerak erakustera. Horrekin batera, hemengo komertzioekin elkarlanean hasi ziren, pelukeriak, argazki dendak... Desfileen kontua moda baten gisa ailegatu zaigu eskualdera, baina lehenagotik bertze tokietan egiten zen. Joan den urtean puskaz jende gehiago etorri zen lehen urtean baino, eta aurren guttienez joan den urteko kopurua biltzea espero dugu. Denetik etortzen da gure feriarra, baina gehienbat ezkondu behar duen jendea, eta hoiien inguruko familiak. Gero kuriosoak ere izaten dira. Nere ustez feria hauek laguntzen dute hemen dagoen aukera erakusten, eta gero jendeak erosteko orduan ez du horren aisa jozten kanpo aldera.



ttopi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13etara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., ☎ 948133328 • 133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- \\ Langile Autonomoak
- \\ Nekazariak eta mendi-langileak
- \\ Nominak eta Aseguro Sozialak
- \\ Lan-kontratutarako laguntzak
- \\ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- \\ Diru-laguntza ezberdinak
- \\ Kontabilitateak
- \\ IVA eta IRPF
- \\ Errenta aitopenak
- \\ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- \\ Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

Baztan-Bidasoa futbito txapelketa Irakurle gehienek dakizuen bezala, urtero Baztan Bidasoa futbito txapelketa jokatu ohi da. Bertan jende asko izaten zen partiduak ikusten, gu tartean ginela. Partiduak igande arratsaldetan jokatu ohi ziren Sunbilla eta Donezteben. Herri hauek, lehenengoa behintzat, guztiz euskaldunak dira. Lotsagarria irudituz gero, partidu gehienetan bai kantxan eta bai eserlekuetan erderaz hitzegitea. Baina hala ere lotsagarriena finalean gertatutakoa izan zen. Sariak emateko ordua iritsi zen eta euskaraz eman beharrean erdaraz eman ziren. Hau lotsagarria da eta espero dugu datorren urteotan eserlekuetan, kantxan eta sariak emateko orduan euskaraz hitzegitea.

BAZTAN BIDASOA TXAPELKETA
JARRAITZAILE BATZUK



Berriz ere Aresoko eskola eskola Logikoa ez bada ere, Areson hiru hilabete daramatzagu eskolaren inguruko gatazkarekin bueltaka. Samingarria da Hezkuntza Departamentutik guri esatea zorte txarra dela Aresoko eskola Udalarena izatea, eta Hezkuntzarena izan balitz ez gi-

OHARRA:
Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.

natekeela egoera honetan egonen, azken hamar urteotan eskolak erakutsi baitu irakasle eta gurasoen arteko elkarlana guztiontzat onuragarri eta aberasgarria dela (ingurugiro-programak, dantza taldeen sorrera, musika, kirola, ikastaroak, hitzaldiak, jaialdiak, ibilaldiak, liburutegia...). Jarduera dinamiko eta ekintzaile hau Udalaren jokabideak geldia-

razi du, eskola erabat itxi baitio derrigorrezko klasea ez den beste edozein jarduerari. Triste da Udala dabilen moduan ibiltzea: bere abokatuekin legearen letra txikia aztertzen ari da, guraso eta irakasleen irizpideen gainetik, gure seme-alabek ordenagailua, kontsulta liburuak, ... erabiltzea galarazteko; gainera, haur txikiak patio estalirik gabe utzi dituzte, etab. Hau da gaur egun daukagun errealitatea, nahiz eta Milagros Oreja zinegotziaren ustez inolako arazorik ez dagoen. Zinegotzi honek, historikoki erregimen totalitario guztiek erabili duten argudio erraz eta txepel bera erabili du, interesatzen ez zaien guztia "politika egiten dute" esaldiarekin kriminalizatuz. Gure galdera hau da: haur-parke bat lortzea, liburuak, entziklopediak eta ordenagailuak erostea, kanpoalderako ping-pong mahai bat erostea, ikasteko teknikak eta ikastaroak antolantea, zaborren inguruko programak, ibaiaren garbiketa, dantza taldeak sortzea, musika, kirola, ibilaldiak, jaialdiak, etab., hori guztia eta gehiago ere politika egitea al da, Milagros andereñoa?

JOSEPI MARZOL ETA
AIZEA MENDIOLA
(GURASO ELKARTEKO
LEHENDAKARI ETA IDAZKARIA)



TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

A G E N T Z I A

- Zurich Aseguruak
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- Inmobiliaria
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- Gestoria
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfinoa eta Faxa: 948



Maderas GOMEN

- ☛ Era guzietako ateak, janbak eta reguesoak
- ☛ Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak
- ☛ Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua
- ☛ Tablerokoak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

Mirari

Pre-mama moda

Barrendik eta kanpotik
janzten zaitugu

Lentzerian neurri bereziak

Serapio Mugika, 14 ¥ IRUN
☎ 943 615886

Pinturak
eta
barnizak

LESAKA

☎ 689 042 671
☎ 948 637556

Manuel Zamorano

PIKABEA

pinturak

Molinero drogerian
galdetu

*Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu*

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • BERA

Familia euskaldunetan egonaldiak egiteko deialdia luzatu du HABEK

Hilabete eta ikasle bakoitzeko 82.000 pezeta jasoko ditu familiak

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 20an argitaratu zuen HABE euskalduntze erakundeak «Egonaldiak Familia Euskaldunetan» plangintzan parte hartu nahi duten familientzako deialdia. Programa honen bidez, euskara ikasten edo hobetu nahian dabilen gazteari familia euskaldun batean hilabete bat edo bi pasatzeko aukera emanen zaio udan (uztail, abuztu edota irailean). Aldi berean, herri euskaldunen bizimodua eta ohiturak ezagutzeko modua ere emanen zaio. Familia bakoitzak erabakitzen du neska ala mutila nahi duen eta zenbat hilabetez hartu nahi duen parte.

Ikasleak 18 eta 45 urte bitartekoak izanen dira eta guttieneko euskara-maila baten jabe izan beharko dute (guttienez 8. urratsa). Aitzinero urteetako datuei erreparatuta, ikasle gehienak bizkaitarrak (%66) eta arabarrak (%17) izaten dira eta adinari dagokionez,



Gure inguruan Zubieta da euskara ikasle gehien jasotzen duen herria. Familian euskaraz solasteaz gain, herriko bizilagunen hamarretik zazpi euskaldunak izatea eskatzen du HABEK.

Artxibokoa

gehientsuenak 23 eta 30 urte bitartekoak.

BIZILAGUNEN %70 EUSKALDUNA

Gure eskualdean batez ere Zubietako familiek hartu dituzte ikasleak azken urteetan. Izan ere, familiak zenbait baldintza bete behar ditu horretarako. Bizilagunen %70etik goiti euskalduna duten herri edo auzo batean bizitzea, egonaldia eskaintzen

den hilabetean guttienez lau kide bizi izatea eta, noski, kide guzien ohiko hizkuntza euskara izatea. Horretaz gain, familiak lehenaldiz parte hartzen duenean, HABEK zuzeneko ikusketa baten bidez ontzat eman beharko du. Gainera, berte baldintza batzuk onartu beharko ditu familiak. Egonaldi bakoitzean ikasle bat bertzerik ez du hartu ahal izanen eta ikasle-

ari logela pribatua emanen zaio. Ikasleak etxeko lanetan parte hartzera beharturik ez badago ere, berak nahi badu parte hartzen ahal du ohiko eginkizunetan.

Familiak 82.000 pezeta jasoko ditu hilabete eta ikasle bakoitzeko. Eskaerak apirilaren 22a baino lehen egin behar dira. Izen emateko edo informatzeko HABEren 943 022621 telefonora deitu.

IMBERSOK adinekoek zuzendutako bidaietan parte hartzeko epea zabalik

Espainiako IMBERSO erakundeak urtero eskaintzen dituen bidaietan izen emateko epea apirilaren 15a arte zabalik dago. Bidaia hauek 65 urte baino gehiago dituztenei, jubilazio pentsioa jasotzen dutenei eta 60 urte beteak dituzten berte pentsionistei zuzenduak daude. Baldintza hauek bete gabe ere izanen da joateko aukerarik: beraien bikoteak baldintzak betetzen baditu eta elkarrekin badoaz edo seme-alabak %45a baino gehiago elbarritasuna badu eta gu-rasoekin badoa.

Bidaiak 2000ko urritik 2001eko ekaina bitartean izanen dira, aukeraturako bidaiaren arabera. 8 eta 15 eguneko txandak izanen dira, Penintsula, Balear eta Kanariar irlak, Portugal eta Kultur Zirkuitoetara. Informazio gehiago eta eskaerak bidertzeko eskualdeko Gizearte Zerbitzuetara deitu: Malerreka, 948 451746; Baztan, 948 580006; Bortziriak, 948 635036 eta Leitzaldea, 948 610617.

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. **Termita eta Polillen kontrako tratamendua**

BERA
948630155
BERA

rtzi U I

E

Ez... r 2 h T I F x 3 15 21

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • 948630083 BERA

Ortziarletan, 10etan
Mus Txapelketak

E E K L E
st tu

Tfnoa: 948630259 - BERA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

LIBE ZAR

948631076 • BERA

Ginekologia kontsulta herrian bertan nahi du Emakume Taldeak

Gaur egun Elizondora joan behar dute zerbitzu hori hartzera

ASIER GOGORTZA

Martxoaren 23ko Udaltzatzen, bertzeak bertze, gai hau izan zuten solasgai hautetsi eta han bildutako herritarrek. Uxua Emakume Taldeko bi kidek egin-dako proposamenarekin ados agertu zen Udaltzatza osoa, arrazoiak ere aski nabarmenak baitira.

Emakumeek azaldu zuten, ginekologoa-rengana joan nahi duten aunitzek ez dute kotxerik Elizondoraino joateko, eta bertzalde, Bortzirietan ba omen dago kontsulta bat jarzeko adina emakume.

Erran bezala, hautesiek ahobatez onartu zuten emakumeen eskera, eta beharrezko pausuak emateko konpromezua hartu zuten. Hasteko, Nafarroako Gobernuak Osasunbideari eskaera egitea agindu zuten, eta herrian bertan, gai honetaz sakonago solasteko bilkura bat egiteko deia egin zuten. Bilkura eguna oraindik ez da finkatu.

Kontzientzia Eragozpenarekin bueltaka

Martxoaren 23ko Udaltzatza horretan, ginekologoaren kontuek gain, soldaduskaren in-

gurukoak ere izan ziren mahai gainean. Izan ere, Berako EAJk moziobat aurkeztu zuen Ordezko Gizarte Prestazioa –lehen suhiltzaileetan egiten zena– herrian egiteko aukera izan dadin berri-ze.

Luze eztabaidatu ondoren, bozketan hartu behar izan zen erabakia. EAJko bi zinegotzietatik eta EAko hiruk aldeko botoa eman zuten, eta bat abstenitu egin zen. EHko 5ek, berriz, kontrakoa eman zuten. Erabakigarria izan zen EAko zinegotzi baten abstentzioa, berdintaren kasuan alkatearen botoak balio bikoitza duelako. Hortaz, EAJren moziota gibelera botatua izan zen.

Eztabaida sortu zen Eskera honek eztabaida piztu zuen hasieratik. EHren izenean, Oskar Goñi zinegotziak, Eragozleen afera Estatuarena dela azpimarratu zuen, eta Udalak ez duela Estatuaren lanik hartu behar. Josu Goia alkateak, bere aldetik, suhiltzaileen parkean ez dutela eragozlerik nahi adierazi zuen.

EAKo Javier Leizak, arazoari irtenbidea eman behar zaiola erran zuen, eta azkeneko aldian EHk proposatu zuen

bidetik deus egiten ez denez, jendeari informaturia egoteko aukera eman behar zaiola. Baina ez bakarrik informazioa, bertze aukerak ere eman behar zaizkio Leizaren ustez.

Informazioa Udalean

Dena den, orain arte gai honi buruz deus egin ez bada ere, hemendik

aitzineraz gazteak informatzeko konpromezua hartu du Udalak. Horretarako Berako Talde Antimilitaristaren laguntza izanen dute.

Elkarlanean informazio zerbitzu bat irekitzeko asmoa agertu dute. Larunbat goizero pertsona bat egonen da Udalean, gai honeri buruz informatu nahi duen guziari atenditzeko.

flash

- ❖ **Liburu Eguna**
Apirilaren 14an, Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, Euskalduna ostatuan testu erotikoen irakurketa bat antolatu du Lamixine Antzerki Taldeak. Ur Apalategi eta Fermintxo Arkotxa idazleekin batera, Jean Louis Hargous saxojolea eta Pantxika Telleria dantzaria ariko dira.
- ❖ **Gure Txokoaren Batzar Orokorra**
Ortizal honetan egiten da Iamotenean, arratsaldeko 8etatik aitzinera.



Jose Luis Lopez hondarribitarrak ateri du lehen izokina

Joan den asteko ortzegunean zabaldu zen berria. Eguerdiko ordubatak aldera Bidasoako lehendabiziko izokina arrantzatu omen zuen hondarribitar batek. Jose Luis Lopez kutxarillan ari zen arrantzan, 50 izeneko putzuan, Montoiako zentralaren ondoan. Joan den urtean ere toki horretan bertan ateri zuen Zalain Zokoko Telletxeak denboraldiko lehendabizikoa.

Izokin honek 3,7 kilo eman zituen pisuan, eta aurten ere Iruñeako Hartza jatetxeari saldu zion Lopezek. Denetara 125.000 pezeta ordaindu dizkiote lehen ale preziazio honengatik. Bitxikeria bezala, izokina Mugaireko arraintegian sortua zela aipatu zuten arrantzaleek, izan ere, adiposo-hegatsa ebakia zuen seinale bezala.

948 631462
Alizate 1 • BERA
Xirgil
Bona Oria

ZALAIN
JATETXEA
EGUNERO MENTIA TIA KALIA
Zalain Auzoa
948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

ROMANO PINTURAK
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.
948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA

➔ **LESAKA**

V. Rally-Sprint auto lasterketa igande honetan burutuko da

Eguzki-Sport herriko eskuderiak antolatu du

AITOR AROZENA

Eguzki-Sport eskuderiak bosgarren aldiz antolatu duen Lesakako Rally-Sprint auto lasterketa igande honetan, apirilak 9, burutuko da. Beti bezala, Agiñako bidea izanen da autoendako pista, 5'900 kilometrotik 15'900 kilometrorera. Ibilbidea behetik goiti eta goitik beheiti egin beharko dute. Lehen parte hartzailea eguerdiko 12etan abiatuko da. Halere, ordu erdi lehenago Be-reautik aterako diren autoak herrian barna pasatuko dira.

Irabazle nagusiarendako saria 100.000 pezetakoa izanen da. Autoak sei mailatan banatuko dira (guttienez, maila horretako hiru auto agertzen badira) eta



Eguerdiko 12etan abiatuko da Eguzki-Spor elkarteak antolatutako V. Rally-Sprint auto lasterketako lehen partehartzailea.

Artxibokoa

maila bakoitzeko irabazleak 25.000 pezetakoa saria izanen du, 20.000 pezetakoa bigarrenak eta 15.000 peze-

takoa hirugarrenak. 25 urte bete ez duten Nafarroako gidariek junior txapelketan hartuko dute parte. Lehen postuan

sailkatzen denak 25.000 pezeta eskuratuko ditu, 20.000 pezeta bigarrenak eta 15.000 hirugarrenak.



Salvatore ermita moldatzen ari da erretiratu talde bat. Lehenik teilatua oso-osorik moldatu zuten, zura eta teila berriak jarri eta orain barreneko eta kanpoko aldetik txukuntzen ari dira Salvatore ermita. Bere borondatez ari da lan honetan lagun koadrila bat, gehienak erretiratuak. Paretak garbitzen ari dira orain eta hori egiten ederki moldatzen dira euren eskuekin eta tresnekin. Bertze lan handiagoak egiteko, ordea, ofizialak beharko direla uste dute eta horretarako dirulaguntzaren bat eskatu dute.

Argazkia: TTIPI-TTAPA TB

▼ **flash**

- ❖ Herrilurrak jabez aldatu Nafarroako Gobernua baimena eman dio Udalari herri lurrak jabez aldatzeko. Zehazki, 46.574 metro koadroko herri-lurra da Udalarena eta Juan eta Francisco Pikabea Alzugairaren 3.405 metro koadroekin aldatuko da. Honela, 1972-az geroztik martxan dagoen ur-depuradorea kokatzen den lurra legeztatuko da.
- ❖ Oinarrizko sukaldaritza ikastaroa Otordua prestatzen hasi eta eltze eta zarzagi artean batere trebeak ez direnei zuzendutako oinarrizko sukaldaritza ikastaroa antolatu du Herri Eskolak, Lesakako Udalaren laguntzaz. Hamalau lagunendako lekua bete ez bada, oraindik izena ematen ahal da Izarra okindegian, 2.000 pezeta utzita. Klaseak larunbat goizetan, 10etatik 12etara eman dira eta Pepita Zubillaga izanen da sukaldaria.
- ❖ Gas naturala Beheko Plazan hasi, Plaza Zaharretik pasatu eta Bittiria karrikatik goiti, ziztuan ari dira gas naturala hedatzeko tubo sartzten. Lana akautzeko, etxe bakoitzera eramateko lotura egin beharko da.

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • ☎ 948637518
LESAKA

Lurrindenda
Marian
endiberrri
Estetika
Beheko Plaza 8 • ☎ 948637791 • **LESAKA**

BITTIRIA
HARATEGIA
☎ 948 627555
Bittiria, 43 • LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 **LESAKA**

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ETXALAR

Korreio edo postako problemak bizirik irauten du

Gauzak ez dira aldatu, nahiz eta protestak eta eskariak ugariak izan

PELLO APEZETXEA

Posta Zerbitzutik jakinara bezala, kartak ez dituzte baserrietara banatzen, eta zerbitzuko orduak lehen baino gutiago dira. Baina hain gutiago, ez direla eguneroko lana betetzeko aski. Eta honela, korreoz jasotzen duguna lehen baino beranduago hartuko dugu denok, baserriko nahiz karrikakook. Orduan, bada, herritar guzoi dagokigun gauza da, herritar guziak baikara kaltetuak, nahiz eta baserriarrak gehiago. Udalak egin ditu bere eskariak, zerbitzua lehengo neurrian mantentzeko. Hainbat jende, bertze aldetik, ez da bulegora kartak jasotzera etortzen, eta bertan pilatzen ari dira. Behar bada, bertze honetaz ere ohartzea gomeni zaigu, ez duela



Hainbat gauza egiten da eskolan Eskola heziketarako bidea da, bizitzako hainbat alderdi desberdinetan hezitzen laguntzen duena. Horregatik, eskolan aunitz gauza ezberdin egiten da: matematika, idaztea, kantua, historia, ingurua ezagutzea, etabar.

preziski karta-partitzailak gauza honen kultura, bera langile soila denez gero. Aipagarria da bertze hau ere: Etxalarako problema hau irratia, telebista eta, batez ere, egunkarietan hedatu dela, aunitzetan TTIPI-TTAPA bidez jakin eta. Aditu

dugunez, EHNE sindikatua ere zerbait egitekotan dabil egunotan, baita LAB ere.

Lorpen nabe berria egiten hasi da

Ehungintza industriarako, galtzerdigintzarako, xeheki, aspal-

ditik pentsatua zuen nabea prestatzen hasi da Industrias Savidai S.L. izeneko enpresa. Beolaldean, Usoa Kooperatibatik hurbil. Han bilduko ditu, orain herrian sakabanaturik dituen lantoki eta biltegi edo almatzen guziak.

flash

- Altxatako pista hobetzeko lana Oiarzungo Iturberri S.L.ri eman dio Udalak Altxatako pista hobetzeko lana. Izan diren eskeintzetatik merkeena berea izan da, 2.200.000 pezetakoa.
- Mendiko lanak Francisco Alzurik hartu ditu Bakantze, kimatze eta garbitze lanak eginen ditu Iriarteko Bordan, Altxatan, Zabaletan eta Otanegin. Kostu osoa 1.140.000 pezeta.
- Arrakoitzeko eremuaren azterketa geologikoa Arrakoitzeko eremu horretan industrialdea plantatzeko asmoa du Udalak. Gobernuak ez badu sobera aintzineria egiten ere, Udalak ez du alde batera utzi nahi gauza. Eta lurraren azterketa geologikoa galdetu du, milioi bat pezeta kostako dena.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater kombinatuak eta menuak
☎ 948627573 • LESAKA

Lanchas
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ☎ 948630735

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
☎ 948635290 ETXALAR

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

LINDDURRENBORDA
sagarbategia
¥ 100 lagunendako
jantokia
¥ Sagarbategiko menua
¥ Gosariak eta bokadilloak
Archa ere kapeletik eraten da
Nabaz Auzoa • LESAKA

HARITZPE
☎ 948635235
☎ 948635038
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK
Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

KAXULA
- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak
Albistur, 51 LESAKA
☎ 948 63 75 58

KOXKILA OSTATUA
Zarandia, 4 - LESAKA

IGANTZI


Estobonagako urbanizazioa korapilotik ezin ateraz

Abizenak Herriko Etxean bertan euskaratzen ahal dira

OSKAR TXOPERENA

Estobonagan etxebizitzak eraikitzeko eskaria egin zenean urbanizazio proiektua nahitanahiez egitea eskatu zien Herrikoetxeak. Proiektua egin eta haseran aintzineran eramateko eskaintzarik izan ezenez, euren gain hartu nahi izan zuten zenbait lur-jabek urbanizazioaren promozioa. Urbanizazioak, ordea, hasieratik mugitu diren lurrez gain, bertze lur aunitz ukitzen ditu, eginak dauden etxeen gainetik eta baita azpitik ere. Lur hauen jabeek, kasu batzutan, urbanizazioak euren lurra

ere ukitzen duela orain dela gutti jakin ahal izan dute. Honek ezadostasunak ekarri ditu, alde batean etxebizitzak akautu eta lehenbailehen bizitzera sartu nahi dutenak daudelako, eta bertzean bere lur zatian inbertsioa egitera behartuak daudenak, momentuz etxerik egiteko intentziorik izan gabe. Bilerak egin dira Herrikoetxe eta lur-jabeen artean, baina momentuz ez dirudi gauzak behar bezala bideratzeko moduan daudenik. Bitartean, urbanizazioaren zati bat egin dago, saneamendua, baina argia, ura eta bertze zerbitzu batzuk sartzekoak daude.



Lau etxe berri egiteko baimena eman zen 1999an

Lau etxe berri eraiki edo altxatzeko baimena eman zuen Herrikoetxeak 1999an zehar: Mikel Eugi, Jose Luis Antxordoki, Jose M^a Altzugarai eta Veronica Fdez. Mitxeltoenari, hain zuzen ere. Bi lehendabizkoak aintzindu xamarrek daude, teilatua emana baitute, hirugarrena hasia da Meukaundiko gainean eta laugarrena, Estobonagan egin beharrekoa, oraindik hasteko dago.

Argazkia: Oskar Txoperena

Abizenak euskaraz

Hemendik aintzinerara abizenak euskaratu nahi dituztenek orain arte baino aunitzez lan errazagoa izanen dute, aurkeztu beharreko dokumentazioa aunitz murriztu dutelako alde batetik, eta Iruñeako Epaitegira joan beharrean Herrikoetxean bertan egiteko aukera izanen

delako. Herrikoetxeke bulegoan erran digutenez, hagitz modu errazean egiteko moduko lana omen da orain.

Eskolako berriak

Joan den ortziralean, martxoak 31, Iñaki Zubeldia idazlearen bisita izan zuten eskolako 2. eta 3. zikloko haurrek. Bertze zenbait la-

nen artean «Pako Belea» argitaratu duen idazleak honi buruzko hitzaldia eman zien haurrei, horixe izan delako azken bolada honetan landu duten ipuina.

Bertzalde, ikasturteko bigarren topaketa izan zuten martxoaren 29an Arantza, Etxalar eta Igantziko haurrek, Igantzin bertan.

SAROB
okindegia 
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

 **BERRIZUN**
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • Tfnoa: 948 627572 • Faxa: 948 637508

Jose Canabal
elektrizista
☎ 948 637541
☎ 666 575899
IGANTZI

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantziko Bentak • Tfnoa: 948 637 411 • Faxa: 948 637 313


ERROTAZAR
Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA
ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan


LEBAKA

➔ ARANTZA

Bortzak Bat nekazarien kooperatibak urteko batzarra egin du

Herri Kirol Jolasetako laugarren jardunaldia igandean burutuko da Arantzan

ELIXABET ETA GARBIÑE

Bortzak Bat kooperatibak urteko batzarra egin zuen martxoaren 18an. Bertan bildu ziren 55 bat lagunek urteko kontuak egin zituzten eta bertz zentzuzko erabakia hartu zuten, hala nola erosketak, berrikuntzak, etabar...

Bertzalde, urtero bezala San Isidro eguna Igantzi eta Arantzakoek elkarrekin ospatuko dute aurtengoan ere. Igantzin egokitu denez, bertan bilduko dira bi herrietakoak. Maiatzaren 15ean, eguerdiko letan meza izanen dute eta gero bazkaria izanen dute Igantziko Herriko Etxean. Bertara joan nahi duten guzkiek ize-

na eman beharko dute. Horretarako, bakoitzak bere juntakoari eman beharko dio. Halere, oraindik nahiko denbora dago horretarako, epea ez baita akautu.

Herri Kirol Jolasetako jardunaldia igandean Arantzan

Igande honetan, apirilak 9, Arantzan burutuko da Nafarroako Herri Kirol Jolasetako laugarren jardunaldia. Arantzako haur (13-14 urte) eta kadete (15-16) mailako neska mutikoen parte hartzen dute aurten proba konbinatu (kozkor biltzea, zakulari lasterketa, txingak, korrikalaria eta arpanlariak). Arantzako jardunaldiaren ondotik,

apirilaren 16an finala jokatuko da Larraintzarran.

Gazte Asanbladako bilera

Herriko Gazte Asanbladak haize berriak bilatu nahian afari-bilera egin zuen joan den ortziralean. Bertan bildu ziren gazteek, hementik aitzinera egin beharrekoak pentsatzen aritu ziren, orain arte egindakoari segitu edo ez, partaideak zein diren zehaztu eta bertze gai batzuetaz solastu zen. Aterpen egin zen afari-bilera horretarako deialdia zabalaz, eta nahi zuen guztiak parte hartzen ahal zuten.

Okerrak zuzentzen Buesaren aurka



Bortzirietako lehendabiziko moda desfilea Aterpen burutu zen

Lehenengo aldiz egin den moda desfile hau inguruetako ileapaindegi, arropadenda etabar bultzatzeko antolatu da. Martxoaren 26an egin zen Aterpen. Arratsaldeko 5etan zen hitzordua eta aterpe berriko jangela jendez gainezka ageri zen. Desfile honetan herriko jendea ere ibili zen modelo gisara, sail ezberdinetan banaturik: haur eta helduen arropa, oinetakoak... Amaia Apezetxea herriko ileapaintzaile gaztea eta Joxerra Lopez beratarrak ziren antolatzaileak. Amaieren ustez, lehenengo urtea izateko jende aunitz bildu zen. «Ez dugu kanpora joan beharrik produktuak erostera eta bertako produktu eta zerbitzuei aukera eman diogu beraien produktuak erakusteko». Heldu den urtean, desfilea berriz egiteko borondatea erakutsi zuen Amaiak. Argazkia: ttipi-ttapa TB

ETAk egindako atentatuaren gaitzespen mozioa EAJk aurkeztu zuen eta bere hortan onartu zen. Alkateak ez zuen bertze moziorik aurkeztu.



PAGOLA
TXISTORRAREN
IZENA
☎ 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin
Terraza eta plater konbinatuak
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA

LECARERA
Legarrea, 9 ☎ 948 637 030 LESAKA

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

KUKUXUMUSU
KAMISSETETAN
%20eko DESKONTUA
(Apirilaren 15 bitartean)

Ostargi Optika

OPTIKO OPTOMETRISTA

- ¥ Lentillak
- ¥ Ikusmen azterketa orokorrak
- ¥ Begietako tentsioaren kontrola
- ¥ Haurrei errebisioa egiten zaie

Eta behar izanez gero
ERA GUZTIETAKO

BETAURREKOAK
DITUGU ZURETZAT

Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 63 07 53

☞ **SUNBILLA**

Giro ederra izan da Antzakaitz taldeak prestatutako kultur Asteburuan

Ultzamako taldea nagusitu zen 48 orduko futbito txapelketan

JAIONE ETA ALBA

Eguraldiak sobera la-gundu ez bazuen ere, Antzakaitz kultur taldeak hirugarren urtez antolatutako Asteburu Kulturaleko ekitaldi gehienek arrakasta handia izan dute.

Ortziralean hurrek ederki pasatu zuten be-raientzat prestatutako koltxoneta eta bertze jo-ku aunitzetan. Gauean, jende sobera etorri ez bazen ere, giro polita izan zen herrian.

Larunbateko ekital-dirik garrantzitsuena es-kulanen erakusketan izan zen, dudarik gabe, in-guruko jende ugari era-karri baitzuten Sun-billako emakumeek egindako lanek. Fut-bolin txapelketan hamar bikotek hartu zuten par-te eta Berako bikote bat nagusitu zen.

Larunbat gauean, or-



Herriko Duikabe musika taldeak kontzertua eskaini zuen larunbat arratsean Fondan. Giro polita paratu zuten.

Argazkia: Edurne Zubieta

tziraleko giro beretsua izan zen herrian. Herriko «Duikabe» musika taldeak kontzertua eskaini zuen Fonda Ostatuan.

Igande eguerdian, berriz, mus txapelketa jokatu zen Ulibeltzak elkartearen. Hamasei bi-kotek eman zuten ize-

na, eta harrigarria bada ere, aitzineko bi urtee-tan bezalaxe, Patxiko eta Mariano izan ziren txapel-dun. Bigarren sa-ria Pakita eta Juana Ma-rik eraman zuten, hiru-garrena Juan Luis eta Jexux Marik eta lauga-rrena, Arretxe eta Paki-tak.

FUTBITO TXAPELKETAREN FINALA ETA ZAREAREN ZOZKETA

Igande arratsaldean, ortziral arratsean hasi-tako 48 orduko futbito txapelketaren finala jo-katu zen. Hamalau tal-dek parte hartu zuten txapelketan eta Basa-burua eta Ultzamako tal-

deak ailegatu ziren az-ken partidura. Txapel-keta osoan nagusi izan ziren ultzamarrak (jo-kalari aunitz areto fut-boleko zilarrezmo mai-lan jokatzeko dute) eta finalean ere ez zuten hu-tsik egin, 9 eta 2 iraba-zi baitzuten Baztango taldeari. Sunbillako Fonda Ostatuko taldea finalean sartzeko pun-ttuan egon zen. Fina-lerdira arte ailegatu zen, baina Basaburuaren kontra berdindu ondotik, penalti jaurtikete-tan galdu zuen finaleko txartela.

Partiduaren akabai-lan, Antzakaitz kultur taldeak zozketatzen zuen zari ederraren zen-bakia atera zen: 1803. Momentuan ez zen txar-telaren jabea atera. Beraz, hilabeteko epea izanzen du agertzeko. Bertzenaz, berriro egi-nen da zozketa.



MARTIKO
Gure baserrietako
produktuak

☎ 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA

ETXANDI TXOKO
jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91



APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

Udalekuak Euskara Zerbitzuen eskutik

Apirilaren 10etik 14ra eman behar da izena


Azkeneko lau urteotan egin dugun moduan, aurte ere Nafarroako Euskara Zerbitzuek 6 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoentzat euskarazko udalekuak antolatuta ditu.

Ikastetxeen bitartez ikasle bakoitzari foiletu informatiboa banatu zaion arren, hona hemen udalekuei buruzko informazio zehatza.

6-12 urtekoentzat aste bateko egonaldia egingen dute Gipuzkoako Alkizan. Bertzeak bertze gisa honetako ekintzak egingen dituzte: hondartza, ibilaldiak, orientazio ikastaroa, eskulan tailerrak, Interpretazio Zentrua...

12-16 urtekoentzat aste bateko egonaldia egingen dute Bidarrain (Nafarroa Behera), natur kirolak praktikatuz: rafting, piragua, eskalada, tailerrak, jolasak, ibilaldiak...

Izen ematea Euskara



Zerbitzuetara deituz egin beharko duzue (Bortzirietan 948-634125, Patri; Malerrekan, 948 451746; Baztanen, 948 580006, Paula eta Leitzaldean, 948 610636, David) apirilaren 10etik 14ra bitartean. Plaza kopurua mugatua da eta izen emateko ordena kontuan hartuko da.

Prezioari dagokionez, Alkizako udalekuena 14.000 pezetakoa da eta Bidarraikoenak, 16.000 pezetakoa. Ordainketa izena eman ondotik egingen da.

Herriko Ostatua berriz ere enkantera atera da


Uda ondotik erabat moldatuko da

IBAN ISASI

Joan den ortziralean, martxoaren 31ko eguerdian ireki zituzten Iturengo Herriko Ostatua hartzeko enkanterako proposamenak. Haserako prezioa libre utzi zen eta hau idazterakoan oraindik ez dakigu nork hartu duen Herriko Ostatua. Apirilean irekitzeko asmoa dago eta abuztuaren 31 arte irekia egonen da. Ondotik, Iturengo Udalak erabat moldatuko du Ostatua eta berriro enkantera aterako du, epe luzeago baterako.

"Sorginen Laratza" programara autobusa

Ibintza kultur taldekoek bidaia antolatuta dute Sorginen Laratza programara. Hasieran aurreikusita dago ekainaren 15eko programara joatea, baina eguna ez dago oraindik guztiz lotua. Dena den, eguna zehazteko beharrezkoa da lehenbizi 45-50 laguneko talde bat elkartzeara. Momentuz, Ituren, Aurtiz eta Lasagara ai-



Etxe izenei buruzko ikerketa argitaratu du Andres Iñigok

«Nombre de oficios en la Oiconomía navarra» izeneko idazlana argitaratu du Andres Iñigo Iturengo euskaltzainak Fontes Linguae Vasconum aldizkarian. Nafarroako etxeen izenetan ageri diren lanbideei buruzko ikerketa egin du. Apezak herri guzietan zeudenez, Apezetxea eta Apeztegia dira etxe izenik arruntenak.

Artxibokoa

legatu da eskaintza, baina harreraren arabera, ondoko zenbait herrietara ere zabaltzen ahal da deialdia. Izena ema-

teko epea apirilaren 16an arte irekia egonen da. Horretarako, herriko ostatu eta dendetan eman behar da izena.

ANTOJOS
boutique pre-mama

Arbelaiz Jauregia
Iglesia karrika 8
(Nafarroako Ibilbidearekin eskin egiten)
Tel.-Fax: 943 63 41 70 • IRUN

Ziborrola ibarria
Hortazko orpea
0-14 urte
Parrokiak 6 - Oinarrizko
Baberrak

Harriena
LENTZERIA

Parrokiak 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

**Udaberri eta udako
lentzeria eta
bainujantzien
kolekzio berria**

ola
SAGARDOTEGIA

250 lagun eserita
Klimatizatu
Sagardotegi menua

102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel: 943 623 130

➔ **MALERREKA**

Maila polita erakutsi zuten Zubietako dardo tiralariek Hernaniko txapelketan

Chiapas eta emakumeei buruzko solasaldia antolatu du Ezpelurak

PATXI IRIARTE

Zubietako Herriko Ostatuko dardo taldeak emaitza ederrak lortu ditu Hernaniko Yausika ostatuan jokaturako Espainiako txapelketan.

Zubietako txapelketan bezalaxe, onena Patxi Aldabe doneztebarra izan zen. Martxoaren 11n, bigarren mailako bakarkako txapelketa irabazi egin zuen, 40.000 pezetako saria eskuratuz. Egoitz Esarte, Jon Mikel Aragon eta Jagoba Hualde ere ongi ibili ziren.

Biharamonean, lan zailagoa izan zuten, lehen mailako txapelketa jokatu baitzen. Patxi Aldabe ez zen bezperan bezain fin ibili, baina Hilario Mutuberriak seigarren postua lortu zuen.

Bakarka ongi ibili baziren ere, bikoteka ez ziren gibelean gelditu zubietarrak. Erran behar da Biescas, Burgos, Santander eta bertze leku batzuetako dardo tiralariek aritu zirela. Halere, Zubietako hiru bikote hamar lehendabizikoaren artean sailka-



Jon Mikel Aragon, Patxi Aldabe, Egoitz Esarte eta Jagoba Hualde, dardoak jaurtitzeko prest.

Argazkia: Zaldua

tu ziren. Aipamen berezia merezi dute Patxi Aldabek eta Egoitz Esartek, hirugarren postua (brontzezko domina eta 20.000 pezeta) eskuratu baitzituzten. Ondotik sailkatu ziren Xabier Bendoiro eta Hilario Mutuberria, eta Jon Mikel Aragon eta Jagoba Hualde.

Gustora daude Zubietako dardo taldekideak. Izan ere, bi ur-

tetan elkarrekin arituta aurre egin diote hamabost urtez elkarrekin ari diren bikoteei.

Chiapas eta emakumeei buruzko solasaldia

Astelehen honetan, apirilak 10, arratsaldeko 7,30etatik aitzinera «Chiapas eta emakumeak» izeneko solasaldia eskainiko du Doneztebeko Ezpelura elkar-

tearen Azkarreta lokalean Vicki Arrizabaleta, Askapenako kideak.

Saldiasako bidea moidatuko da

Intxureako zubitik Saldiaserako bidea moldatzen ari dira. Alde batetik, Euskal Herriko txirindulari itzulia igaroko da eta, bestetik, Lotzabian parean lanak eginen dira eta bide hori erabili beharko da.

➔ **ADINEKOAK**

Arkupeak elkartearen gimnasia eguna apirilaren 13an

Azken urteotako ohiturari eutsiz, Arkupeak elkarteak soinketa edo gimnasia eguna antolatu du aurten ere. Apirilaren 13an elkartuko dira Iruñeko Oberena elkartearen instalazioetan. Goizeko 11etan hasiko da gimnasia erakustaldia. Herriz herriko ikastaroetan landutako ariketak erakutsiko dituzte erretiratuek.

Kirola egin ondotik indarrak berreskuratzeke, bazkari goxoa prest izanen dute Gorraizko Jauregian. Hasteko, zizka-mizkak, txuritabeltxa, barazki-pudina eta onddo-krema izanen dute. Haserakoak jaus-teko, Grany Smith sargar berdearen sorbeta eta ondotik, antxume errea bere saltsan eta Idiazabal krema. Postre gisara, etxeko gozo ezberdinak probatzeko aukera izanen dute eta hau dena bustitzeko, txanpana, ardoa, ura, kafea eta kopa arrunta izanen dute. Egun osoaren prezioa 3.000 pezetakoa izanen da Arkupeak elkarteak bazkideentzat, baina gimnasia parte hartzen dutenek egunpasa ordaindua izanen dute.

**Alberto
RETEGI
abokatua**

Altzate 17
BERA
☎ 948 630 763

38tik 66ra
bitarteko
neurriekin
janzten
zaitugu,
arropa gazte
eta moda-
modakoekin.

BOUTIQUE

Lulu

NEURRI BEREZIAK

Hondarribia 15, gibelaldea
Tel.: 943 616165 • IRUN

Besta eta
ospakizun
ezberdinetako
jauntzietan
ere aukera
zabala
eskaintzen
dugu.

etxegintza

Lau pareta altxatzea baino puskaz gehiago



Gaur egun eraikuntza desberdinen barrenean ematen dugu denbora gehiena: etxean, lantokian, ostatuan... Hortik dator, beharbada, eraikuntzek gure bizimoduan hartu duten garrantzia.

Euskal Herrian, nekazaritzari lotutako baserria izan da betiko bizilekua. Baserritik bizi direnak aunitz eskastu badira ere, islada

handia du oraindik eraikuntzan. Hemengo jendeak, oro har, pisuak baino bereiztutako etxeak nahiago ditu bizitzeko.

Bertzalde, etxegintzak lan aunitz sortzen du hemen, eta hor erakusten du eraikuntzak bere bertze aurpegia, inbertsioarena, alegia. Dirua banketxean kontu beharrean eraikuntzan inberti-

tzen dute zenbaitzuk.

Gehiga-

rri honetan eskualdeko hainbat adituren kolaborazioak bildu ditugu.



☎ 948 450 305

☎ 948 450 068

DONEZTEBE

- *Etxegintza eta burdindegi materialak*
- *Zeramika (Venis, Porcelanosa, Aparaci, Porcelanato)*
- *Teila frantsesak (Guiraud, TBF)*
- *Egurrezko sukaldeak*
- *Tximiniak*



Etxeak behar bezala orientatzearen garrantzia

Historiako aro bakoitzean eraikuntzen tipologia aldatzea eragiten duten faktoreak daude, hala nola, bizibide mota desberdinak, eraikuntzarako teknologia berrien eza-gutza, material berriak, itsasoarekiko altuera, baita haizearen joera eta eguzkiaren posizioa ere.

Nafarroako mendialdeko Bortzirien zokogunean, hainbat tipologia ikus daitezke baserri zein herriguneetan, denak ere Mendebaldeko haizearen nagusitasunak eta kokapenaren altuerak baldintzatzen.

Lesaka, Bera eta Etxalarko etxeak

Mendi zokoan dauden Lesaka, Bera eta Etxalar herriek, nekazaritzara usatuak eta tenperatura xuabeekin, Hegoa edo Ekialdera begira jartzen dituzte beren etxe eta baserrien aitzinaldeak, balkoietan baratzeko produktuak

idor tzen jarri ahal izateko, eta bigarren goiko hormapikoak irekiak ditzutela. Beraz, kokapen horrek eguzkiaren beroa probextu eta aldeberean Mendebaldeko haize euritsuetaz babesteko aukera ematen du. Leihoak ere arau berdina segituz egiten ziren: leiho gutti eta tikiak Iparraldera begira, haundiagoak eta balkoiekin Hegoaldera, hoiak haizeaz gerizteko Mendebaldeko pareta luzatuz. Ekialdera begira sarrera nagusia jar tzen zen normalean, ikuilura ematen duen ate haundi bat ere bai. Lehendabiziko solairuan sala eta logela nagusia, eta Mendebalde-



Lehengo baserrien ohiko itxura. Teilatuak bi urekoak eta gailurra hegoaldera begira.

Horrela laburbiltzen

da gaur egungo etxebizitzan

banaketa: logelak Ekialdera

begira eta sala eta sukaldea

Hegoalde eta Mendebaldera.

Javier

Manterola

Tekniko instalatzailea

iturgintza • gasa • kalefakzioa

948 630 031

31780 Bera



Juan Luis Otxoteko

PINTOREA kanpo eta barnealdeak

Bittiria, 26 - 3.B - 31770 LESAKA - 948 63 79 02 - Tel./Fax: 948 62 75 14

Eskatu
aurrekontua
loturarik
gabe

J.B. ITURRIA SL

ERAIKUNTZAK

ETXEBIZITZEN PROMOZIOA

eta SALMENTA

APARTAMENTU ETA LOKALAK:

Elizondon, Erratzun eta Arizkunen

Mendinueta ibilbidea, 6 • Elizondo
948 580 304



Baserri zahar eta berrien orientazio desberdina ikusten da argazkian. Zaharrak hegoaldera begira, eta berriak aldir paisaje ederragoa den tokira orientatuak.

ra, azkenik, leiho bat edo bat ere ez.

Igantzi eta Arantzakoak

Igantzi eta Arantzako etxeak, al- tuera handiagoan egonik ere, arestiko hauen gisako orienta- zio joerak erakusten dituzte, baina, batez ere Arantzán, aitzina- ldeko egurrezko egitura eta balkoiak desagertzen dira. Leiho- ak ttikitu egiten dira, Bortzirie- tako bertze herrietan baino ten- peratura hotzagoak direlako.

Teknologia berriak eta orientazioa

Gaur egun eraikuntza berriak paisaiaren arabera kokatzen di- ra, eta horretarako aitzinaldea bista politak izateko moduan orientatzen da, eguraldi txarra- ren (ura eta haizea) enbarazuei garrantzirik eman gabe.

Aurrerapen teknologikoen eta eraikuntzan erabiltzen di- ren material berriek, isolatzaile termikoek, zurgintza berriaren leiho eta ateetako hermetiko- tasunak, haize eta uraren kal- teak ttikitzen dituzte. Hala ere, gehien-gehienetan kalte hoi- k kontuan hartzen dira oraindik ere, eta eguzki aldera jartzen saiatzen dira eraikuntza berriak diseinatu eta orientatzerakoan.

Faktore meteorologikoak

Haize eta euritik babesten duen eta eguzki orduak ongi probex- ten dituen orientazio egoki ba- tek, erosotasun handiagoa eta eraikuntza berotzeko diru gas- tu ttikiagoa eskatzen du.

Bainan badira kontuan har- tu beharreko bertze zenbait faktore, batez ere hilabete eguzkitsuetan: eraikuntzen bar- nealdea frexkatzeko aireak. Eguz- kiaren eraginez (neguan onu- ragarria) Hegoaldeko paretak sobera berotzen dira, baina Iparraldekoak hotz eta heze- goak mantentzen dira. Egoera hori probextea beharrezkoa da, Iparraldeko leihoetatik sartzen diren aire-korrante frexkoak barnealdea gurutzatu eta He- goaldera begira dauden leiho- etatik ateratzera behar tuz, edo bereziki horretarako egindako zuloetatik.

Beharren arabera diseinuak aldatu

Bortzirietako eguraldiak agin- tzen duenez, eguzkiak gutti jo- tzen du euri eta hezetanaren aldean. Horregatik, eguzkia bi- latu beharra zegoela bazekiten

lehenengo herritarrek, eta arront baserri politak egin zituzten. Bai- nan orain bizi garen gizar te ho- netan erosotasunak eta den- bora libreak agintzen du, eta e- txea behar berri hoietara egoki- tzeraz jotzen dugu, kokatzeko den lur-eremuaren ezaugarrie- tan oinarritzen den diseinu es- kema bat osatuz. Bainan, bi hi- tzetan, horrela laburbilduko litzate- ke: gaueko gelak (logelak) Ekial- dera begira eta egunekoak (sa- la eta sukaldea) Hegoalde eta Mendebaldera begira, normal- ki familia arratsaldetan biltzen baita lanaren ondoren, eta eguz- kiak jotzen duen azken orduak probexten dira. Gainera, paisaia eder baten aitzinean baldin ba- gaude, hobe.

Denok konturatzen gara energia aurreztearen beharraz, bere erabilera ez-egokiak in- gurumenean sortzen dituen kal- teak baititu, eta diseinu eta orien- tazio zuzen batekin kalte hori murrizten laguntzen badugu, gure etxea inguruarekin hobe- kiago integratzea segurtatuko dugu. ♦

Juan Ignacio OYARZABAL
ARKITEKTUA

Jagoba Irisarri Elizagoien

ITURGINTZA LANAK

HORMIGOI ZULAKETA

608 777 498

948 635 782 • Lakateneborda • ETXALAR

JUANOTENA ALDAIA

zurgindegia

• Ateak • Eskalerak • Leihoak •

Zurgin lanak orokorrean

Tel.: 948 450 211 • DONEZTEBE

ETXEBERRIA
ZURGINDEGIA

Tel.: 948 450310 • Etxekoa: 948 580997

Mugikorra: 608. 677 997

ELGORRIAGA

Tximistindar

elektrizitate

instalazioak

Alkaiaga industrialdea, ☎ 948 631452

Eraikuntzaren lege berria

Heldu den maitzaren 5ean, "Ley de Ordenación de la Edificación" delakoa jarriko da indarrean. Espainia osoan bete beharreko legea da eta etxegintzan aldatetako ekarriko dituena.

Lege honen xedea partikularren interesak defendatzea da, eta, horretarako, partehartzaile guztien egin behar eta ardurak finkatzen ditu. Legea bere osotasunean hemen aipatzerik ez dagoenez, eraikuntzan parte hartzen duten eragileen definizioak aipatuko ditut, horretan baita legearen berrikuntza nagusia:

Promotorea:

Lanak bulkatu eta finantzatzeko pertsona edo enpresa. Honen egin beharrak hauexek dira: Eraiki nahi duen lur eremuan eraikitzeko eskubidea izan beharko du. Proiektua erredaktatzeko behar den dokumentazioa proiektugilearen eskura jarri (momentuko egoera azaltzen duten planoak, topografikoa, hidrografikoa, ikerketa geoteknikoa, egingarritasun urbanistikoa...). Baimen eta lizentziak eskuratzeko, eta eraikuntza lanaren hartzeko, agiria izenpetzea. Promotoreak ere bi aseguru egin behar-

ko ditu: lehena 3 urtekoa eraikuntzaren elementu eta instalazioetan sortzen ahal diren akatsak estaltzeko, eta bertzea 10 urtekoa eraikuntzaren egitura aseguratzen. Gainera, etxe berriak saltzeko asmoa bada, erosiaren obraren inguruko dokumentazioa eman beharko dio.

Proiektugilea:

Promotoreak eskatuta proiektua eginen duena. Hau arkitektoa, arkitekto teknikoa, injeneru, edo injeneru teknikoa izan daiteke kasuaren arabera, eta legeak ongi finkatzen du bakoitzaren ahalmena. Beti ere, proiektua araudia errespetatuz egin beharko du, eta dagokion elkargorekin oniritziarekin.

Eraikitzailea:

Hitzarmen bidez, promotorearekin lanak aintzineratu eramateko konpromezua hartzen



duena. Bere egin beharra obra egitea da, proiektuari, legediari eta obra zuzendaritzaren irizpideari jarraituz. Eraikitzaile gisa jarduteko baleskoa dela erakutsiko duen titulazioa edo trebakuntza profesinala,

frogatu beharko du; konstruktorearen lana izanen da ofiziale burua izendatzea, eta obraren mar txia segitzeko beharko dituen datuak ematea obra zuzendaritzari. Baita urte bateko aseguru egitea, gerta daitezkeen akatsak estaltzeko (bertzela promotorearen ordainketaren zati baten gibelatzea).

Zuzendaritza:

Eraikuntza lanaren aspektu teknikoak, urbanistikoak, ingurugi-



Lege honen xedea

partikularren interesak

defendatzea da, eta, horretarako,

partehartzaile guztien egin behar

eta ardurak finkatzen ditu.



BERATARRA ARGIAK

DONEZTEBE 670 48 93 37

BERA 689 23 19 83

Leitzako bidea, 66 • 8. blokea 2.C • 31740 DONEZTEBE

rokoak eta itxura bera zuzenduko du, lizentzia eta baimen guztien arabara egiten dela ziurtatuz. Proiektuan egon daitezkeen aldaketaz egin, promotorearekin adostuz. Lan bukatuaren dokumentazioa gauzatu, sinatu eta promotoreari eman.

Kalitate kontrolerako entitateak:

Autonomi Elkargoen akreditazioarekin kalitatea ziurtatzeko ahalmena duten erakunde, enpresa edo laborategiak. Euren ikerketaren emaitzak eskatzaileari eta zuzendaritzari emanen dizkiote.

Hornitzaileak:

Materialeen fabrikatzaile, inportatzaile eta saltzaileak. Beren eginbeharrak hauek dira: Materialeen kalitate, ezaugarri eta jatorria eskatutakoarekin bat datorrela ziurtatzea eta emate epea errespetatzea. Produktua saltzerakoan, erabiltzeko jakin-beharrekoak azaldu beharko dizkio eraikitzaileari, baita kalitate



«Lege honek orain arteko lan egiteko moduetan eragin zuzena izanen du».

tate bermearen inguruko dokumentazioa eman ere.

Jabeak eta erabiltzaileak:

Jabeek eraikuntza zaindu beharko dute, erabilera eta mantentzen zuzena eginez. Eraikuntza lanaren dokumentazioa gorde eta mantendu beharko du-

te, baita paperen eskualdaketa ziurtatu salerosketarik baldin bada. Gainerako erabiltzaileek, jabeak ez izanda ere, obra bukaerako agirian aurreikusten den moduan erabili beharko dute eraikuntza.

Lege honek orain arteko lan egiteko moduetan eragin zuzena izanen du. Bertze gauzen artean, obra ttiketian kontra-

tista nagusia eta gremioen arteko harremanetan, koordinazio eta lan segurtasunean, obra aseguratzea derrigor tzean. Horietan guztietan eragina izanen du lege honek. ♦

Jokin PASTOR
BIDASOA ARKITEKTURA
BULEGOA

Mikel UBIRIA ESKABAZIOAK



ESKABAZIO ETA GARRAIOAK M. UBIRIA

+ 619 71 63 22 - 608 77 96 41

948 637 244 BITTIRIA PLAZA, 8 - LESAKA

Segurtasuna eraikuntza lanetan

Denok dakigu eraikuntza sektorea arront zabala dela eta atal hau ezagunak ditugun par taide-ek osatzen dutela. Par taide haue-tako batzuk Eragileak edo Promotoreak ditugu, Kontratatik, Teknikoak, eta aipatuko ez ditugun bertze hainbertze.

Azken urteotan nabarmena izan da eraikuntza sailak izan duen gorakada, baina honekin batera, zoritxarrez, istripuen zerrrendak ere gora egin du. Arazo larri hau konpondu nahizik, eraikuntza lanetan bete behar ko diren guttienezko betebeharrak eskatzen ditu Administrazioak.

Hauetxek dira nahitanahiez eraikuntza lan guztietan bete behar direnak:

Promotorearen betebeharrak

Enpresa batek baino gehiago parte hartzen dutenean, edo langile autonomoak tartean badirenean, Eragileak Segurtasun eta Osasun koordinatzaile bat izendatu beharko du.

Eraikuntzaren bolumenaren arabera, Eragileak Tekniko bati Segurtasun eta Osasun Lana (*Estudio de Seguridad y Salud ESS*) edo Oinarrizko Segurtasun eta Osasun Lana (*Estudio Básico de Seguridad y Salud EBSS*) enkargatzearen ardura du.

Eragileen bertze guttienezko betebeharrak Kontrata edo kontratistek Segurtasun eta Osasun Plana(k) eskatzea da.



Kontratatisten betebeharrak

Segurtasun eta Osasun Plan bat idaztea. Planak balio ahal izate-

ko koordinatzailearen onespena beharrezkoa da.

Planean eta ESS (edo EBSS)-n idatzita dauden arau guztiak momentu oro bete behar dira.

IGELTSU PROIEKTATUA LOIZATE

J.M Mitxelena

X. Zubieta

948 637 750
689 908 665

BERA

948 634 199
677 559 436

JUANIXO SAN MIGUEL Iturgintza eta Kalefakzioa

☎ 948 45 08 66

Elizagibela 3,a • 31.740 Doneztebe

Construcciones

LOHITZUNE eraikuntzak



Tel.: 948 615084

Mug.: 608 286461

Penta etxea • 31749 EZKURRA



FURRIONDO

zurgindegia

Mota guzietako zurgin-lanak

948 630 253

Zalain industrialdea, 7 • 31780 BERA

 **Azken urteotan**

*nabarmena izan da
eraikuntza sailak izan duen
gorakada, baina honekin
batera, zoritxarrez,
istripuen zerrendak ere
goiti egin du.*

Koordinatzailearen betebeharrak Kontratistak idatzitako Segurantzaren eta Osasun Planaren onspena eman beharko du.

Gorabehera liburua (*Libro de Incidencias*) obraren eraman, eta bertan obraren gertatzen diren gorabeheren berri emanen du. Liburu ho-

nek (eraikuntza lanak irauten duten bizkitartean) obran egon beharko du.

Planaren edukina obra bateko Segurantzaren eta Osasun sailaren arautzen duen oinarriko tresna da, eta momentu oro kontutan eduki behar den afera bat da. ♦

Juan Mari ALEMAN
Patxi VALER
Itziar ALEMAN
ARKITEKTU TEKNIKOAK



Inaxio AZPIROZ
'ALTZATE'

Eraikuntza eta berrikuntzak

Sukalde eta bainugeletan berezitasuna

Azpirozenea etxea
GORRIZTARAN AUZOA
LEITZA • ☎ 948 510 148

HUR-BERRI SL

ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
ELEKTRIZITATEA

☎ 948 452 449 - 649 82 63 01 • Fax: 948 452 452
Oharriz - **31795 LEKAROZ**

HARRI-LAN SL

Harri zizelkariak

Harri landuak, paretak apaintzeko harriak, harlauzak...

Oharriz auzoa
☎ 948 452 143 • Fax: 948 452 452
31.795 LEKAROZ



Jose Canabal

Instalazio elektrikoak orokorrean

ARGIZTAPENA
MATXURAK • ALARMAK

☎ 666 57 58 99 - 948 637 541
IGANTZI

OSKARIZ ANAIAK

ARGIÑAK

MOTA GUZIETAKO ARGIN-LANAK

948 452 255 • Mainerrenea etxea • 31700 ELIZONDO

Berdintasunaren aldeko legea

Zer lege den hau? Bada, guztiok edozein egoeratan izateaz gain, leku guztietara (erabilerara publikoetara behintzat) iristeko eta toki guztietan ongi moldatzeko daukagun eskubidearen aldeko legea. Ez da perfektua, bere akatsak baditu, baina lagungarria bada. Dena den, ikus ezazue zein urtekoa den, eta pentsa ezazue oraindik zenbat koska gelditzen diren.

Pixkan-pixkan sartzten ari da

Orain arte lege hau ez da sobera betearazi hemen Nafarroan, baina aldaketa dago, badirudi orain Iruñea aldean serioski hartu dutela, eta proiektu guztietan kontutan hartzen ari direla, beraz badator gure herrietara betetzearen aldeko haize hori. Gure hiriburuan espaloak guttinaka moldatzen ari dira, nagusiak bederen, eta da-



sa, oraindik udalek ez dute betearazten, eta ez dakit ezagupen edo usadio faltagatik den. Badi-ra toki publikoak zein zerbitzu publikorako lokal pribatuak, bere kasa, eskaloiak kendu dituztenak; baina gutti. Kendu dituztenen artean, adibide ona, Ibardingo lepoko Bentak dira. Hango lan motagatik, denda karroen ibiltzea errazteko, ohartu dira ez dela inolako oztopo jarri beharrik eta gaur egun, edozeinek erabil ditzake komertzio hauek, baita bertara hurbiltzen diren agureek ere.

Aldameneko herrialdeetan igualtsu dabilta, iparraldean ezik. Hor ohitura gehiago dute oztopo fisikoak baztertzeko, bai karrikatako ibilbideetan zein zerbitzu publiko-

etan, hortan ere europarra-
goak dira.


Guztien erosotasunean pentsatu

Legea betetzea hagitz erraza da, bai behintzat proiektua egiterakoan kontuan hartzen bada. Gauzak guztiendakoz egin behar direla aurrez ez badugu ikusten, ordea, gero komeriak, zail-

goeneko erabilera publikorako diren proiektuetan eskatzen ari dira, eta betetzen ez bada isunak jarzten hasiak dira; tamalez horrela baita ikasten dugun modu bakarra.

Hemen diodan bezala, nahiz eta legea atera zenetik hamaika urte pa-

SUMINISTROS YANCI



- ITURGINTZA INSTALAZIOAK
- GAS ETA GASOIL BEROGAILUAK
- ERREGAILUEN MOLDAKETA ETA MANTENIMENDUA
- SANEAMENDURAKO MATERIALA SALGAI

Santiago, 82 - ELIZONDO - IRURITA
Tel.: 948 45 24 64 • 948 58 01 09

IRIBAL ZURGINDEGIA

ZURGINDEGI OROKORRA

Leiho, ate, zola...

Antxolokueta 28, behea • 948 635 071 • ETXALAR

LEIZ NIK

ERAIKUNTZAK

Patxi Arrazola, 14 • 1.A

Tel. 948 610 934 / 948 610 927

Mugikorra 689 231 961

LEITZA

tasunak, obra zail eta garestiak. Eta gauzak guztiendakoz egin behar direla erraterakoan guzientzat erran nahi dut: gurpildun aulkian dabilen elbarri edo ezindu fisikoarentzat ezezik, haurra aulkitxoan daramaten gurasoentzat, eresketa karroa arrastaka daramatenentzat, saltzaile eta banatzaile guztiarentzat eta horietaz hornitzen diren dendari, tabernari etabarrentzat, agurentzat, itsuentzat, mainguentzat...

Hondarrean guztiarentzat onuragarriagoa da, baina aunitzarentzat ezinbestekoa.

Derrigorrezko betebeharrak

Erran dugun bezala, legea ez da perfektua, baina minimo bat da bederen. Ez dut lege guztia hemen azalduko, bainan legeak gauza argiak erraten ditu, hala nola derrigorrez bete behar diren kasuak:

Eraikuntza espazio libreetan edo erabilera publikorako eraikin eta lokalen diseinu eta eraikuntzetan, berritze lanetan, haunditzeoetan, hobekuntza


edo erabilera aldaketetan derrigorrezkoa da dekretu hau betetzea, eta ez du inporta jabego publiko edo pribatua den.

Legea betearaztea, Udalen ardura

Idazki honen buruak erraten duen bezala kontuan hartu behar dugun legea hau da: 154/1989ko ekainaren 29ko Foru Dekretua, 4/88 Lege Forala garatzen duena. Kontuan har ezazue mesedez (eta derrigorrez) bai diseinatzaileek, proiektugileek, konstruktoreek, promotoreek zein herrietako udalek. Baina batez ere azkeneko hauek, betearaztera behar tuak baitaude proiektua edo obra eskaera guztiak behatzerakoan, eta horrela ez bada obra egin denean konpon dezaten.

Koxkak eta oztopoek traba egiten dute bide publikoetan, soberan egoteaz gain, benetan ez dute ezer tako ere balio. ♦

Julen LEKUONA
ARKITEKTU TEKNIKOA



Lokal publikoetako sarreretan debekatua dago 2 zentimetro baino gehiagoko koxkak jartzea.

Batez ere Udalei

eskatu behar zaie lege hau

betearaztea. Horretara

behartuak daude proiektu


edo obra eskaera guztiak

behatzerakoan, eta horrela ez

bada obra egin denean

konpon dezatela.

TXARAGORRI



iturgintza

649 85 34 40

649 85 34 40 - 948 610749

Elbarren, 56(Martikonea)31880 LEITZA

AROSZTEGI METALIKOA

S. Odrizola - B. Huici

Tel.: 948 63 12 44

Alkaiaga Industrialdea • Elutxa kalea • Pab. 3/18
31789 LESAKA

Astiz anaiak

Zurgindegia

Zurgin lanak orokorrean
Sukalde eta bainurako altzariak

Elbarren 84, 31880 Leitza
948 610 606

“Etxea eraiki nahi nuke. Zer egin behar dut?”

Ez da erantzun bakarreko galdera, etxea eraiki ahal izateko aukera bat baino gehiago ematen baitu Legeak. Horrengatik, ez da lan erraza leerro gutxi batzuetan honi erantzuna ematea.

Etxebizitza eraikitzeko, lur-eremua behar dugu, noski. Lurra erosteko pentsamenduetan dabiltzanei aholku bat emango diet: erosi baino lehen, begiratu ongi Udaletxean lursail horretan zer egin daiteken eta zein baldintzetan, erosi eta gero ezustekorik ez izateko. Gehien gertatzen diren 2 kasu aipatuko ditut hemen.

Etxebizitza lurzoru urbanizaezinean

1994an onetsi zuen Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamenduko Foru Legea, eta handik 2 urtetara Erregelamendua. Erregelamendua honekin (9. artikulua) ireki zen gure zonaldean etxebizitzak eraikitzeko aukera, artikulua honen errazten baitu etxeak eraikitzea lurzoru urbanizaezinean, baldintzak betetz gero, noski. Artikulu hau aplikagarria da



Lur urbanizaezinean eraikitzeko, guttienez 1.500 m²ko eremua behar da.

hemengo herri gehienetan. Ez ditut zehaztuko artikulua jar zuten dituen baldintza guztiak, baina bai aipagarrienak:

Etxea egiteko baldintzak

Ohiko etxebizitza bezala erabiltzeko konprometua hartu behar da eta bizileku iraunkorra izango dela ere aitortu; be-

raz, debekatua dago artikulua hau probetxatzea bigarren bizitza bat eraikitzeko, asteburu eta oporretan erabiltzeko adibidez.

Etxea eraiki nahi duenak lurraren jabeak herrikoa izan beharko du, edota, ondoko herri batekoa, Nafarroan balego ondoko herri hori. Gainerakoan, miloi bateko fidantza aurkeztu

beharko luke Udalean.

Etxea eraikitzeko erabili nahi den lursailak, gutxienez, 1.500 metro karratu neurtu beharko ditu. Esan beharrik ez dago lursail hori lurzoru urbanizaezinean kokatua egon beharko duela. Lurraren %66a gutxienez, eraiki gabe utzi behar da, baratze, soro edo baso bezala. Partzelako zati bat bertako zuhaitzak

landatzeko erabili behar da. Eraikuntzak, funtsean, eskualdeko etxeen gisakoa izan behar du.

Bi etxebizitza biltzen dituzten eraikuntzak onesten dira ere, baldin eta bien titularren artean ahaidetasuna bada tarako.

Baldintzak betetz gero, jo dezakezu zure Udaletxera, lurzoru urbanizaezinean etxebizitza eraikitzeko prozedura martxan jartzera. Lasaitasunarekin hartu, prozedura luzea da eta.

Pausoz-pauso

Lehenengo eta behin etxebizitza eraikitzeko eskaera aurkeztu behar da Udaletxean. Idazki honen batera, beharrezkoak diren agiriak ere bai, baldintza guztiak betetzen direla frogatzeko. Momentu honetan ez da nahitaezkoa etxearen proiektua aurkeztea, nahikoa da krokis edo aurre-proiektu bat.

Udalak txosten bat egingo du eskaerari buruz eta espediente guttia Nafarroako Gobernura bidaliko du, 2 hileko epean.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta



H. LOPEZ ITURGINTZA

Bainuontziak, Manparak,
Hidromasaia, Hidrosonic

- KALEFAKZIOA
- GAS INSTALAZIOAK
- ITURGINTZA
- INDUSTRIALA
- UREZTATZE SISTEMAK

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Tel. 948 45 21 26 / 617 34 99 44 • 31793 NARBARTE

Urte bateko finantziakoa interesik gabe
5 urteko finantziakoa

Etxebizitzako Kontseilariak emango du baimena baldintzak betetzen badira. Baimen hau eskatzaileari eta Udalari jakinaraziko zaie.

Gero, obra egiteko lizentzia eskatu behar da Udaletxean, eta honekin batera aurkeztu behar da etxearen proiektua.

Udaletxeak, lizentzia eman aurretik, bizigarritasun txostena eskatuko dio Gobernuari. Honenbertez, Hirigintzako Plangintzaren arauak bete direla egiaztatu ondoren, obra egiteko lizentzia emango du Udalak.

Gero, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu behar da. Badira lor tu beharreko beste 2 baimen, kasu berezi hauetan:

Kasu bereziak:

Errepide batetik 30 metro baino gutxiagora kokatu nahi bada etxea, Nafarroako Gobernuari eskatu behar zaio baimena. Dena den, gutxienez, errepidetik 18 metrotara kokatu behar da.

Ugaldeetara gorde behar diren distantziei buruz, berriz, esan behar da 100 metroko tartean eraikitzeko baimena eskatu behar zaiola Iparraldeko Ur-Konfederazioari.

Baimen guzti hauek lortu ondoren, obra hasitzeko garaia ailegatu da (*azkenean...*! pentsatuko dute batzuk). Obra bukatzen denean, arkitektuak ziurtagiri bat eman beharko du. Ziurtagiri honekin 3 tramite bete behar dira:

- Bizigarritasun zedula eskatu Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Zerbitzuan.

- Udaletxean eskatu okupatze-lizentzia, eraiki den etxean bizi ahal izateko.

- Etxebizitza berri horren eskriturak egitea notario batean.

Etxebizitza lur urbanizagarrian

Herrian bertan etxebizitza eraiki ahal izateko, Arau Subsidiarioek jar tzen dituzten baldintzak betetzea besterik ez dago. Proiektua egingo dugu, eta honekin, obra egiteko lizentzia eskatu Udaletxean. Hemendik auzi



Erramua teilatuan, obra akautu dela seinale.

Lur-eremua erosi baino

lehen, begiratu ongi Udalean lursail horretan zer egin daitekeen eta zein baldintzetan, erosi eta gero ezustekorik ez izateko.

rrera, lehen aipatu dituzten tramite berberak bete behar dira. Gaia sobera ez konplikatzeke, bertze kasu bereziak aipatu gabe utziko ditugu.

Zalantzak argitzen

Nork egiten du proiektua?

Arkitektu batek egin behar du proiektua, eta honek bisatua egon behar du. Bisatua, Arkitektuen Elkargo Ofizialak ematen duen zigilu bat da.

Zenbat kostatzen da proiektua?

Duela urte batzuk liberalizatu ziren arkitektuen tarifak, baina orokorre-

an esan daiteke, proiektua egin eta obraren zuzendaritza eramateagatik, obraren aurrekontuaren %8tik-10era ordaindu behar zaiola arkitektuari.

Obra egiteko lizentzia lortu ondoren, ba al dago eperik obra bukatzeko?

Bai. Lizentziak finkatuko ditu obra hasteko eta bukatzeko epeak. Gainerakoan, epe hauek aplikatzen dira: urte bat obrak hasteko eta 3 urte bukatzeko. Dena den, epeen luzapena eska daiteke Udaletxean.

Zenbat ordaindu behar zaio Udalari eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergarengatik?

Aurrekontuaren arabera. Udaletxe bakoitzak bere portzentaia di, baina beti %2tik %5ko tartean. Obra hasi baino lehen ordaindu behar da. ♦

HIZTEGITXOA

Hitz batzuk hobeki ulertzeko, hona hemen iategitxo hau.

Planeamendurako Arau Subsidiarioak - Hirigintzako Plangintza: Agiri hauen bidez finkatzen dira herri bakoitzean dauden lur motak, non kokatzen diren, eraikitzeko baldintzak, etab.

Hiri-lurra: Lur mota bat. Aurreko Arauak finkatzen dute non dagoen eta baldintza batzuk bete behar ditu (ibilgailu-sarrera, ura, argia, saneamendua,...)

Lurzoru urbanizaezina: Lur mota bat da ere, herriatik kanpo egoten da, eta orokorrean nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzarako erabiltzen da. Lur mota hau beste 6 klasetan sailkatzen da.

Lurzoru urbanizagarria: Urbanizatzeko diren lurrak.

Lizentzia: Udaletxeak ematen duen baimena, eraiki ahal izateko.

Bizigarritasun txostena: Nafar Gobernuko Etxebizitza Zerbitzuak ematen du txosten hau, egiaztatzeke eraiki nahi den etxebizitza bertan bizitzeko baldintzak betetzen dituela.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: Udaletxeak kobratzen du zerga hau, obraren aurrekontuaren arabera, eta obra hasi baino lehen ordaindu behar da.

Bizigarritasun zedula: Nafarroako Gobernuak ematen du agiri hau obra bukatu ondoren, etxeak bizigarritasun arauak betetzen dituela egiaztatzeke.

Mikel BELARRA
ITUREN ETA ZUBIETAKO
IDAZKARIA

CIABAR

Obras y construcciones

ERAIKUNTZAK

Babes Ofizialeko

24 bizitza Elizondon

CIAURRIZ IRAIZOZ PROMOZIOAK

ERA GUZIETAKO ERAIKUNTZA ETA SALMENTA

Santiago 55, behea • ELIZONDO

948 580 452

Arkitektura bioklimatikoa

Historikoki arkitektura gizakia-
ren beharrak erantzuteko mo-
dua izan da. Erantzun hori be-
ti ere hiru baldintzei lotuta egon
da: Erabilera, gizartearen bizi-
moduaren araberakoa, tegno-
logia, eta ingurunekeo kultura.

Ohiko arkitektura, eskualde
ezberdinen eguraldiari eran-
tzuteko modua izan da, toki eta
garai bakoitzan eskura zitzuz-
ten baliabide teknologikoekin.



Teknologiaren garapena

Teknologiaren eta kulturaren
garapenak arkitektura inguru-
neatik bereiztea ekarri du men-
de honetan. Eraikuntzarako
dauden materiale berri, etxe-
bizitzaren aklimatrazio eta argiz-
tatzeari esker gertatu da.

Klima eta ingurunea

Arkitektura bigarren larruaza-
laren gisan hartzen ahal dugu,
inguretik babesten digu baina
gure azala bezala ingurunearen
ondoriak pairatzen ditu. Hotz-
beroa, hezetasuna edo argitsu-
na bezalakoak luzera eragin zu-
zuna dute eraikuntzetan. Arki-
tektura bioklimatikoa baldintza
hauek kontuan hartzen duena
da. Erabilera eta erosotasunari
begiratzen diona, baina inguru-
nearekin eraikuntzak daukan
harremana bereziki zaintzen
duena.

Toki bakoitzak ezaugarri kli-

matiko ezberdinak ditu, hai-
zea, altuera, orientazioa, to-
pografia, uraren hurbiltasuna
etabar.

Hegoaldera begiratzen duen
mendi magal bateko etxeak
eguzki radiazio gehiago bildu-
ko ditu, iparaldeko magalean
dagoena baino. Mendi kaxko-
an dagoaneri haizeak gerizean
dagoenari baino gehiago joko
dio. Altuera igo ahala tempera-
tura eta hezetasunak beheiti
egiten dute eta radiazioak ber-
riz goiti.

Erosotasuna

Arestian aipatutakoak aintzat
hartuz bizitza eroso egin dezake-
gu. Erosotasuna bere zabaltasu-
nean har dezakegu, hezetasun,
bero, argiztapen eta erabilgarri-
tasun egokiena izanzen duen bi-
zitokia.

Eguzkia energi iturri gisa ga-
rrantzia handia dauka. Proiek-
tuatik hasita eta etxearen koka-



Proiektu

bioklimatikoa ez

da energia xahutzen

duen eraikuntzari

eguzki plakak

eranstea, jarrera

kontua baizik.

pena eta orientazioa eguzkia-
ren arabera egiten dena, eguz-
ki arkitektura pasiboa da. Eta
leiho, pareta, kristala, etabarrak
horren arabera jartzen ditu.
Eguzkiaren eragina probexteko
moduaren arabera, eragile akti-
boak ere gehitzen ahal ditugu:
beroa biltzekoak, plaka fotobol-
taikoak, etabar.

Proiektua bioklimatikoa ha-

sieratik energiaren aurrezpena-
ri emanen dio lehentasuna: be-
har energetiko ttikiak dituen e-
txea proiektatzea lehenetsiko
da, behar handia duenaren on-
doan, naiz eta bigarren horren-
tzat energia aunitz bilduko duen
sistema proiektatu.

Horregatik beharrezkoa da
bero pilaketa, inertzia termikoa,
isolamendu, eta orientazio zu-
zeneko etxea proiektatzea.

Beraz proiektu bioklimati-
koa ez da energia xahu-
tzen duen eraikuntzari
eguzki plakak eranstea, ja-
rrera kontua baizik.

Jarrera kontua

Irizpide bioklimatikoak
jarraitzeak ez du erran
nahi, etxeak estetika zeha-
tz bati jarraituko dionik,
edo alabeharrez ezauga-
rri batzuk eduki behar di-
tuenik. Eraikuntza guztiek,
edozein mota eta estilota-
koak izanda ere, irizpide
bioklimatikoak har ditzake-
te kontuan. Gainera, gaur egun,
proiektu bioklimatikoek ez du-
te teknologi aldetik bertzeek
baino zailtasun edo kostu gehi-
ago izan beharrik. ♦

Mikel LANDA
Eduardo ZUBIKOA
Sebastian LOPEZ


LZL ARKITEKTUAK (IRUÑA)

ETXEPARE
ANAI AK

Zaharberritzeak

+ 948 637 431

Bittiria, 22 • 31.770 LESAKA



OKILA
zurgindegia

Lander Sein - Mikel Arburua

Piedade gaina z/g

31790 Igantzi



948 637 249

Leku-Eder, 4 / 1.D • Tel.: 948 45 15 96
31791 SUNBILLA (Nafarroa)

SASOI

ESKABAZIO ETA GARRAIOAK

Telefono mugikorra:
608 77 93 66



- LUR MUGITZEAK
- LUR ZANPATZEAK
- LUR BERDINKETAK
- URBANIZAZIOAK
- KANALIZAZIOAK
- GARRAIOAK

TOLDOS BAZTAN




SALMENTA
ALOKAIRUA
KONPONKETA



948 63 10 03
629 01 59 23

Presta zaitez udarako!

- Eguzkitik babesteko toldoak
- Manualak, elektrikoak, urrunetik irekitzekoak
- Kamioiendako gisa guzietako toldoak (irristatzaileak ere)
- Errotulazioa



Baldrun 8, Alkaiaga industrialdea • Lesaka • SARRERA BERA KO ZALAIN AUZOTIK

PVCko leihoak

“ISOLAMENDURAKO IRTENBIDE ONENA”

Etxebizitzak mendeetan zehar izan duen eboluzioa nolakoa izan den gainbegiratzen badugu, hasieratik leihoa osagai garrantzitsua izan dela ikus dezakegu.

Historiaurreko leizeetan jada, kanpoalde eta barnealdearen arteko lotura bakarra sarrerako zuloa zen, eta horrela, gaur egungo etxebizitza arte.

Bainan leihoak, erakuntza baten kanpoko itxuraren zatia izateaz gain, ondoko funtzioak ere bete behar ditu:

- Argiztapen naturala eta aireztatzea erraztea.
- Etxekoak eguraldi txarretik babestea.
- Segurtasuna ematea.

Eta hori dena, kriterio batzuek kontuan hartuta:



- Estetika: Iraupena eta guttueneko mantentzea.
- Erosotasuna: Termikoa eta akustikoa.
- Ingurumenarengan eragina.

PVCaren abantailak

Hagitx hedatua da gaur egun PVCaren erabilera; automobil industrian, elikaduran, medikuntzan, modan, etab., baina leihoetarako material bezala kriterio guztiak asetzen ditu.

- Haize kolpeak eusteari dagokionean, PVCko leihoak kategoria gorenean kokatzen dira, V4a (bikaina) UNE 85.204-79aren ikerketa baten arabera.

- Uraren kontrako hermetikotasunean, UNE 85.206-81 Arauaren eskerak asetzen lortzen

du eta leihoak goreneko kategorian sailkatzea: E4 (bikaina).

Suaren kontrako segurtasunean, berriz, M1 materiala da, hau da, erretzeko zaila eta berez itzaltzen dena, eta ezin du surik sortu, ezta honi hedatzen lagundu ere.

Estetikari begiratzen badiogu, erran behar da gisa guzietako itxura eta koloreak daudela, baita egur tonuak ere, gure eremuan hagitz erabiliak, eta abantaila handi bat dutenak: eguraldiaren gorabeheren aitzina

 **Hagitx**

hedatua da gaur

egun PVCaren

erabilera: automobil

industrian,

elikaduran, modan,

medikuntzan...

baina leihoetarako

material bezala ere

kriterio guztiak

asetzen ditu.

nean aldagaitza da, ez du kontserbatzeko inolako produkturik behar, eta ura eta xaboiarekin nahikoa da egoera ezin hobean jarraitzeko (ez pinturarik, ez bernizik...).

Kalitateari dagokionez, gure leihoek AENOR zigilua daukate, gure bezeroei 10 urte baino gehiagoko garantia ematea bermatzen diguna. ♦

Richard ALZUGUREN

P.V.C. AN ADITUA

MERYT Materialak

**BERAN
ERAIKUNTZAREN
BILTEGI OROKORRA**

Ubela industrialdea

☎ 948 631 201 - BERA

ARANTZAKO ZURGINDEGIA

Jose Miguel Errandonea

Klase guzietako zurgin lanak

+ 667 35 88 07 Osina auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA



Ordoki Industrialdea • ARIZKUN
Tfnoa. eta faxa: (948) 45 32 59

4 arrazoi on PVC jartzeko



Kalefakzioan
% 35a
ahorratzen
duzu



ISOLAMENDUA



Ez du
pintura
beharrik



MANTENU ERREXA



Ur eta
haizeaz
babesteko,
baiza ere
soinuetatik



HERMETIKOTASUNA



Denborak
ez du alda-
razten



IRAUNKORTASUNA

**Etxe berrietan eta
zaharretan. Edozein
itxiera, balkoi,
leiho, atari...**

**Eskatu aurrekontua
konpromezurik gabe**



BETIKOn kolore

**ugari ditugu,
baita egur
koloreak ere
(haritza, kaoba,
pinua etab.).
Eta edozein
etxe estilora
egokitzen
direnak.**



Eskatu aurrekontua loturarik gabe 948 453 259 telefonoan edo bisita gaitzazu



Hergóm

BEROGAILUAK, SUKALDEAK,
BEHEKO SUAK...




Almaco Baztan

ETXEGINTZA ETA
SANEAMENDU MATERIALAK

☎ 948 580 104 / 948 580 366

ELIZONDO




ALMACENES ETXANIZ SA



Lesakako
Iturria anaiak


- Bainuak
- Sukaldeak
- Iturgintza
- Kalefakzioak
- Gasagasoila
- Griferiak
- Mobleak
- Manparak
- Hidromasajea



ERAKUSKETA Tfnoa. 943 61 17 67

IRUN

BILTEGIAK
Juan Arana, 3



LEIHO ETA ATEAK

LEIHATE

GAZTAÑAGA HERMANOS, S.L.

IRUN

PINAR KARRIKA, 2 - beheak
Tfnoa: 943 61 41 56

DONOSTIA

MAESTRO SANTIESTEBAN
KARRIKA (Irungo plaza)
Tfnoa: 943 46 96 22

✓ BARNEALDEEN BERRITZEA:

- Barneko atek
- Ate blindatuak
- Zolak: Tarima rastrelatuak eta flotanteak

✓ P.V.C. eta hotz-berozak isolatzen duen aluminiozko leihoak

✓ Armairu enpotratuak



➔ GOIZUETA

Nafarroako Bertsolari txapelketaren finala herrian burutuko da apirilaren 16an

Gazte Asanbladak hainbat ekitaldi antolatu ditu bezperarako

ESTEBAN AROZENA

Martxoaren 10ean Tafallan hasitako bidearen bukaera apirilaren 16an Goizuetan izanen du Nafarroako Bertsolari txapelketak, egun horretan ospatuko baita aurtengo edizioaren finala arratsaldeko 4,30etatik aurrera herriko pilota plazan, Luinekoan, eginen den saioan.

Hasierako eta bukerako agurrez aparte, neurri ezberdineko beste hamalauna bertso bota beharko dituzte finalen kantatzeko ohorea izanen duten zortzi bertsolariek. Pronostikoak beteko balira, Arozena goizuetarrak eta Legarreta aranoarrak hauen



Duela lau urte bezala, Luineko pilota plaza bete eginen da Nafarroako Bertsolari txapelketaren finalerako.

Artxibokoa

artean egon beharko lukete.

Oroitarazi behar da 1996an ere gure herrian

izan zela txapelketaren finala. Orduan lor-

tutako arrakastak animatu omen du Udala aurtengoaren antolakuntza ere bere gain hartzeko.

Barrikotea larunbatean

Gazte Asanbladak ere bat egin nahi izan du hain emanaldi garantzitsuarekin eta asteburua osatu nahian, hainbat ekitaldi antolatu ditu larunbaterako. Lerro hauek idazterakoan oraindik zehaztu gabe zegoen egitaraua, baina gauean barrikote herrikoia izanen da, eta ondoren, musika talde batek joko du Gazte-txean. Afarirako txartelak kafetegian daude salgai, 1.800 pezetan.

➔ ARESO

Ehun urte beranduago Gipuzkoako mugak begiratu dira

Hitzarmen berria sinatu da 2000. urtea dela eta

JUANA M^a SAIZAR

Orain dela ehun urte, 1900. urtean herriko mugarriak eta mapak egin omen ziren azken aldiz. Aresorekin muga egiten duten Berastegi, Oresa eta Lizartzakoe-kin bildu eta mugarri horiek berriro begiratu dituzte. Obrak direla eta arazo eta aldaketak suertatu omen dira eta ke-

xak azaldu dira. Hiru mugarrieta ingurutik hasi eta Mikeleteraino begiratu ondoren, mapa eta inskripzioek dioten bezalaxe omen daude. Hitzarmena sinatu du te 2000. urtea dela eta.

Eskolarteko pilota txapelketa

Leitzaldea, Bortzi-riak eta Malerrekako eskolek benjamin eta ale-

bin mailako pilota txapelketa antolatu dute. Xabi, Garikoitz eta Txomin dira Aresoko ordezkariak.

Eskolako guraso batzuk Iruñera

Martxoaren 22an, 38-40 pertsona bildu ziren Iruñean Hezkuntza Departamenduaren aurrean, «Aresoko Udalak erabaki duelako esko-



Herriko pilotari txikienek eskualdeko txapelketan parte hartuko dute.

Artxibokoa

la-ordutatik kanpo egin litekeen edozein jarduerari eskola ixtea, eta jokabide horren ondorioz sortu den gatazka-*rentzat konponbidea eskatzeko*». Ekitaldi honen barruan prentsaurreko bat eman zen eta

bertan, besteak beste, ikasleek egin duten sinadura bilketa aurkeztu zen. Sinadura bilketa honekin liburutegia berriz irekitzea eskatu dute, «*beharrezkoa baita beren ikasketa eta lanetarako*».

Programazioan berrikuntzak izanen ditu Karrape Irratiak

Saio berriak izanen dira eta bigarren esatari bat ariko da lanean

JOSEBA AZPIROZ

Hiru hilabetez esatari bakarra aritu ondoren, martxoaren bukatu aurrera berriro ere bi esatari arituko dira Karrape Irratian: Aranza Iparragirre eta Unai Zabaleta. Baina ez da hau aldaketa bakarra izanen. Kalitatea bermatu eta entzulegoaren arreta hobetzearen eguneroko programazioan berrikuntzak sartzea erabaki dute esatariek. Horrela, kale inkestak egiten dituzte, udaleko ordezkariekin irratsaio finkoak zehaztuko dituzte, «Kontu kontari» saioak mahai inguruaren funtzioa beteko du eta beste bi lagun gehiagorekin batera, Leitzako eta kanpoko gertakari garrantzitsuen inguruko iritzi ezberdinak jasoko dituzte. Bestalde, osasuna eta elikaduraz informazioa jaso eta eskainiko dute, asteartero. Gainera, apirilaren 7an hasita eta ostiralean, hamabostero pertsonai ezagun bat elkarriketatu dute «... itzalarekin hizketan» izeneko irratsaioan. Pertsonaiak, beraien alderdi ezkutuen, ezezagunena eskainiko dute, entzuleek zerbait gehiago jakin dezagun beraietaz. Hortxe dugu



Gaztetxoei zuzendutako mendi martxa antolatu zuen Mendibil taldeak martxoaren 18an

Martxoaren 18an, Mendibil mendi taldeak, 4. 5. eta 6. mailako ikasleei eskainitako mendi martxa izan zen. Hogeita hamaika gaztek parte hartu zuten aipaturiko martxan. Herriko Plazatik atera eta Arremia, Iruso, Gazpillo-Txiki, Leitza ibilaldia egin zuten. Mendibil mendi taldekoek adierazi digutenez, gazteei zuzendutako irteera gehiago antolatuko dituzte, oinez nahiz bizikletaz. Herrikan kanpora joatea ere pentsatu dute. Arg.: Mikel Ilarregi

aukera. Karrape Irratian, asteleheneetik ostiralean, 11 tatak ordu bietara, FM 107,8 uhinean.

Euskara ikasleak udan etxean hartzeko deia

Euskara ikasten edo hobetu nahian dabiltzanak, familia euskaldunetan hilabete bat edo bi pasatzeko aukera izan dezaten, HABE eta Eusko Jaurlaritzak egonaldi-programa bat prestatzen du urtero. Gure herrian programa

honetan parte hartzen duen famili bakarra dago, nahiz eta eskatzen dituzten baldintzak famili askok bete-etxeko kide guztien arteko ohiko komunikazio-hizkuntza euskara izatea, egonaldia eskaintzen den hilabetean gutxienez lau kide bizi izatea...

Familiak ikasleko eta hileko 82.000 pezeta jasotzen dituzte. Eskabideak aurkezteko epea apirilaren 22an bukatuko da. Informazio gehia-

go nahi izan ezker 943 022621 telefonoan jaso dezakezue. Informazio zehatzagoa 8. orrialdean aurkituko duzue.

Euskal Presoak etxera manifestazioa ostiral honetan

Leitzako Lizarragarazi taldeak, ostiral honetan, hilaren 7an, arratsaldeko 8'30etan «Euskal presoak etxera» lemapean egiten den manifestaziorako deialdia luzatu du.

flash

- Herrilurrak jabez aldatu 7.360 metro koa-droko herri lurra Pedro Lizarza Baraibarena den beste batekin trukatu du Udalak. Trukearen xedea bi herrilur lur-sail bakar batean bil-tzea da.
- Diapositiba emanaldia Apirilaren 14an, ostirala, arratsaldeko 8,30etan Mendibil mendi taldeak antolatutako diapositiba emanaldia burutuko da zineman. Iñaki Campionek Amerikari buruzko argazkiak erakutsiko ditu.

Leitzako Zinema

Ostiralean
10,30etan
Larunbatetan
7,30etan

2000-04-07/08

Ghost Dog

2000-04-14/15

East is East

2000-04-20/21

The Straight Story

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritis, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

MAGNETOTERAPIA NATUROPATIA

(943) 62 30 55
San Marcial, 7-4 IRUN

ONDORIOETATIK INDARTZEKO

- Diabetia
- Asma
- Larru azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsalde 2-7etara. Ordua eskatu

➔ BAZTAN

Pirinioko autobidearen inguruko taldea sortzeko bilera egingen da

Ortziral honetan, apirilak 7, Arizkunenean elkartuko dira

TTIPI-TTAPA

Pirinioko autobidearen inguruko taldea sortzeko bilera egingen da ortziral honetan, apirilak 7, arratseko 7,30etatik aitzinera Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Baztandik pasatzen ahal dela kontuan hartuz, autobidearen inguruko informazioa bildu eta zabaltzeko asmoz LEIA elkar-tearekin hainbertze bilera izan eta gero, Baztanen honen inguruko talde bat sortzea proposatuko da. Ortziralean egingen den bilkura horretan talde hau nola egin proposatuko da, bezaz, aferan honetan inersa duten guziak deituak daude bertan parte hartzera.

Herrilurrak jabez aldatu

1.518 metro koadroko herrilur, Juan Bautista Souleren 2.557 metro koadroko lurraekin aldatuko da. Udalaren helburua, herrilur eremu zabal baten barnean dagoen eremu partikularra eskuratzea da.



Zuhaitzaren Eguna
Baztan Ikastolan
 Martxoaren 19an, urtero bezala Zuhaitzaren Eguna ospatu zuen Baztan ikastolak. Bezperean guraso batzuk ikastolako oihana garbitu zuten eta igandean, nahi izan zuen guziak bere zuhaitza landatzeko aukera aprobetxatu zuen. Bertzalde, Iñigo Arista Kolektiboak antolatutako lehiaketan sarrituetako bat Baztan ikastolako Maialen Sobrino Lopez izan da. Mailalenek bi sari eskuratu ditu, bat idazlanean eta bertzea marrazketan. Saria Nafarroako Gobernuan hartu zuen eta berak idatzitako idazlana irakurritz eskerrak eman zituen.



▼ flash

- ❖ Baztango Begiralekua moldatuko da Ziga eta Aniz artean dagoen Baztango begiralekua moldatuko da laster. Balleko leku ezagunetako aizanagatik, egoera kaxkarrean zegoen aspaldian. Aparkalekuko harri xabalak xehatua daude eta bertze horrenbertze gertatzen da balkoiarekin. Moldatze lana errega da, baina urtean gibeleratu da. Nafarroako Bide Zerbitzuak egingen ditu lanak eta Balleko Udalak jarriko ditu behar diren harri xabalak.
- ❖ Baztandarren Biltzarra kartel lehiaketa
 Uztailaren 16an «Eskuarak batzen gaitu» lelopean ospatuko den Baztandarren Biltzarra iragartzeko kartel lehiaketa antolatu da. kartelak 50x70 cm.koak izanen dira gehienez eta apirilaren 29ko eguerdia baino lehen egon beharko dute elkarteren esku. Epaimahaiak kartel bakarra aukeratu du eta 50.000 pezetako saria emanen dio.



JUAN LARREGI

«BITXO»

Udaberri eta udarako promozioak
 Motozerrak, motoaitzurak,
 desbrozadorak, belar moztekoak...

☎ 948 580898
 Santiago 10 • ELIZONDO



HUSQVARNA
STIHL
Japoniarrak

BAZTAN



Lekaroz eta Elizondoko institutuko ikasleak Nafarroako Unibertsitate Publikora Lekaroz eta Elizondoko Institutuetako 60 ikaslek Nafarroako Unibertsitate Publikora bisita egin zuten martxoaren 22an. Ikasleek unibertsitateko instalazioak ikusi zituzten eta NUPen matrikulatzeko egin beharreko tramiteei buruzko solasaldia aditu zuten.

Diario de Noticias

flash

Suteak han eta hemen
Negua idor joan da eta aunitz izan dira Baztanen piztu diren suteak. Martxo hasieran, Ziga ondoko Soate, Urles eta Ullari inguruetan hiru hektarea mendi erre zen. Martxoaren 19an, Lekaroz eta Arraioz artean dagoen Zapitor inguruan sutea gertatu zen. Hiru hektarea kixkali ziren eta gehien bat hamazazpi urteko haritz amerikanoa erre zen. Martxoaren 22an, berriz, 120 hektarea erre ziren Aritzakun inguruko eremu babestuan.

17 milioi terdi azpiegitura lanetarako 17.489.955 pezetako dirulaguntza jasoko du Balleko Udalak Nafarroako Gobernu Toki Administrazio departamentutik 1997-99 Hirurteko Planaren barnean egindako lan batzuk ordaintzeko. Zehazki, Irurita hiru karrika zolaberri tzea, Zozaiako plazaren urbanizazioa eta Arraiozko karrikak eta Erratzuko Iturritzar karrika eta pilota plaza moldatzea izan dira lan horiek. 33.503.970 pezetako gastua egin da guzira, haseran uste baina 2.770.272 peza gehiago.

Bide moldatzea Beartzun eta Iruritan bideak moldatzeko lanak (17.158.040 pezetako aurrekontua) 2000ko Azpiegitura lanen planean sartzea eskatu du Udalak.

68 milioi pezetako aurrekontua oihan berritze lan batzuetarako

Autrin, Zarbasta eta Zapitor inguruetan egingen dira plantazioak

TTIPI-TTAPA

68.131.822 pezetako aurrekontua izanen dute balleko mendietan egin beharreko oihan berritze lanek. Hiru proiektu gauzatuko dira. Horietako bat Autrin inguruan egingen da, Iñarbegi eta Burga mendietan. 23.371.992 pezetako aurrekontua izanen du. Bertze lan batzuk Legate mendian egingen dira, Zarbasta inguruan eta 15.087.528 pezetako inbertsioa egingen da. Azkenik, Legate berean, Zapitor inguruan egingen den lanak

29.672.302 pezetako aurrekontua izanen du. Proiektu guziki Gestión Ambiental Viveros y Replobaciones de Navarra, SA enpresak idatzi eta Nafarroako Gobernuak sustatu ditu.

Ipuin eta komiki lehiaketa antolatu du Balleko Udalak

Baztango Udalak ipuin eta komiki lehiaketa antolatu du bigarren urtez. Bi lehiaketak hiru mailatan banatu dira: A maila, 12, 13 eta 14 urtekoentzat; B maila, 15, 16 eta 17 urtekoak eta C maila 18

urtetik goitikoentzat.

Ipuinak eskuaraz aurkeztu beharko dira gai librean, idazmakinez edo ordenagailuz idatzirik eta lerro artean bi espazio utzita. A mailan, 3 eta 5 orrialde arteko lanak egin behar dira; B mailan 5 eta 7 orrialde artekoak eta C mailan 7 eta 10 orrialde artekoak.

Komikiak ere eskuaraz aurkeztu beharko dira, edozein teknika erabiliz eginak, zuri-bel tzean nahiz koloretan. Lanek lau orrialde beteko dituzte gehienez, eta inoiz ez dira izanen

DIN A3 baino neurri handiagoak.

Komikiak eta ipuinak Baztan Balleko Etxeko Erregistro Nagusian aurkezteko epea maiatzaren 12an akituko da. Horretarako, gisa honetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabili beharko da. Epaimahaiak, bertzeak bertze, Baztango mintzairaren erabilera hartuko du kontuan.

Lehendabiziko saria 50.000 pezetakoa izanen da bi lehiaketetan, bigarrena 30.000 pezetakoa eta hirugarrena 20.000 pezetakoa.

ARGIBEL OPTIKA
 948 581 391
 Santiago 62 - ELIZONDO

Aukera zabala

- Anteojoak
- Lentillak
- Audi fonoaak
- Erreberisioak

B A Z T A N
ALTZARIAK
 zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

Euskal preso politikoaren aldeko sustengua izenpetu du Herriko Kontseiluak

Mementu huntan 80 saratar plataformako kide dira

ANA MARI ETA FRED

Euskal preso politikoaren aldeko sustengu plataformak martxoaren 17an antolatu zuen informazio bilkurara 40 lagun bildu ziren. Saran bizi den Toyas anderearen lekukotasuna izan ginuen, bai bere ahizparena ere. Mikel Epalza arrantzaleen apezak ere presoek eta familiek jasaten duten egoera salatu zuen. Entzuleen artean aipatu behar da bortz hautetsi zirela, hala nola, Aniotzbehere, Arotzarena, Indart, Jauregi eta Libier jaunak. Auzapezak berri ona ekarri zuen erranez herriko kontseilua Plataformaren sinatzailea zela. Mementu huntan, 80 saratar plataformako izenpetzaile dira. Zu ere gaur efungo kartzela politikoa salatu eta presoaren eskubideak errespetatuak izan daitezten alde baldin bazara etxean banatua izan duzun papera bidali ezazu zuzenbidu huntara: Sarako Plataformak; Denen Etxea; Sara.

Bertzalde, joan den abenduan hasi ziren elgarretaratzeak egiten segitzen dute. Ondokoa Azkainen iraganen da apirilaren 7an, arratseko 7etan.

Herriko Etxeko edantegiko mus txapelketa

Urtero bezala, Herriko Etxeko edantegiko mus lehiaketa giro ederrean bururatu da.

Goi mailan, txapel-dunak Etxabarria anaiak



Sari nagusia, lau lagunentzako bidaia, Etxabarria anai bizkaitarrek eskuratu zuten.

atera dira, bigarren postua Jean Philippe Amorena eta Mizel Saint Martin-eri utziz. Hirugarren Evelyne eta Claude Etxegarai; lau-garren Marie Hélène eta Martin Goienetxe.

Bigarren mailan Jean Marc Aspirot eta Mixel Etxeberrik bildotsa irabazi zuten. Joan den urtean Beñat Etxegarai eta Pettan Elizalde lortu zuten sari hau, baina aurren bigarren gelditu zi-

ren.

Hirugarren mailan, Jean Yves Zunda eta Patrick Iribarren hautesiek irabazle ateri ziren; bigarren postuan Raphaël Goienetxe eta Paskal Sathick. Finalen ondotik, 60 lagun bildu ziren bazkaltzeko; nahiz eta Jose Angel musikaria hor izan jendea dantzarazteko muszale gehienak kartetan segitu zuten bazkariaren ondotik.

Jostablai lehiaketan Sarako Gau Eskola

AEEK eta Gure Irratiak antolatu Josta Blai irrati jokoaren karia, Sarako Gau Eskolako ikasleak xarmanki hasiak dira Baionako taldearen aurka irabazi baitute lehen neurketa. Ondoko norgehiagoka apirilaren 13an jokatu dute Kanboarren kontra. Gure ordezkariak lagundu nahi dituztenak Gure Irratiar

joaten ahal dira arratseko zazpiak eta erdietarik goiti, edo telefonoz ere jokoetan parte hartzen ahal da.

Errugbilariak sasoin ona

Gure errugbilariak sasoin ona egiten ari dira, eta apiril huntan kostaldeko erdi finaleko partidak jokatu dituzte Bardozen aurka. Joaneko neurketa apirilaren 2an jokatu beharra zuten Bardozen, eta itzulekoa igande honetan, apirilak 9, Animaniako kirol zelaietan. Dударik ez gure basurdeek denen laguntza beharko dutela finalean sartzeko, beraz heldu den igandean denak Animaniar!

8. Trial lehiaketa

Apirilaren 9an, igandearekin, Itsasuko Trial elkarteak bere lehiaketa antolatu du. Aurten ibilbidea aldatua izan da; orain arte Axuria mendiaren mazelan zuten lehia, baina hemendik aintzin Xabalotik Usategi aldera ibiliko dira. 80 moto gidarik parte hartu beharra dute lehian, horien artean saratar batzuk izanen dira. Ikusikizun hau igande huntan urririk ikusten ahal duzue goizeko 10etatik goiti.

Euskal Herriko Gaztetxeetako ordezkariak Saran bildu ziren martxoaren azken asteburuan

Martxoaren 24, 25 eta 26an, Gaztetxeen elgarretaratzea iragan da Saran. Hiru egunez, Donibane Lohizune, Azkaine, Senpere, Tolosa, Garazi, Sara eta bertze herri batzuetako gazteak bildu dira. Ortzirak arratsaldetik, akanpada jarri zuten Plaxidoren Bordako in-

guruan, han afaldu eta elgarren ezagutza egin zuten. Biharamonean, Baionako presoaren aldeko elgarretaraterat joan eta Sararat itzuli ziren gaubeila eder barten pasatzeko, akordeoia eta gitarra doinuak lagun. Igandean, nahiz eta lo gutti egin, gazteak goizik atzarri ziren

herri jokoetan parte hartzeko, baina aro txar-rarengatik ezin izan zituzten egin. Arratsaldean, 40 bat lagunek Omordia gelan bazkaldu zuten. Guziak giro goxoan iragan dira, eta denak ados ziren horrelako bertze egunak antolatu behar liratekeela errateko.



URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Xaretaren egitasmoa begi onez ikusten du Nafarroako Turismo Zuzendaritzak

Partzuergoa izanen litzateke egiturarik egokiena Javier Tabernaren ustez

MARGARI ETA KORO

Nafarroako Gobernuko Turismo Zuzendaritzako kideek martxoaren 22an Urdazubira egindako bisitan, Xareta lurraldearen plan-gintza estrategikoa aztertu zuten. Javier Taberna, Komertzio eta Turismoko zuzendaria, Cristina Arcaya, Turismo Zerbitzuko zuzendaria eta Yolanda Marco, Turismo saileko arduraduna, Zugarramurdi eta Urdazubiko alkateekin bildu eta Xareta hartu beharreko egitura juridikoaz solastu zuten. Javier Taberna partzuergoa osatzearen alde agertu zen, «lan handia» egin beharko dela onartuz. Dena den, Ainhoa eta Sara Xaretan sartuak daudenez, zuzenbide frantsesak eskaintzen dituen aukerak ere aztertu beharko dira.



Andres Diharasari eta Jesus Agerre, Urdazubi eta Zugarramurdiko alkateak Turismo Zuzendaritzako ordezkariekin bildu ziren. Diario de Noticias

“Ugarana” Emakume elkarteak sortu da Urdazubin Otsailetik martxan dago Urdazubin «Ugarana» emakumeen elkarteak. Elkarte bat osatuz herrian ekintza gehiago burutzeko au-

kerak direla eta hunek sortarazi zuen taldea. Momentuan 30 emakume sartuak dire, baina oraindik irekia dago izena eman nahi duen edozeinentzat. Elkartearen arduradunak hauek dira: Anastasi Bidart (le-

hendakari), Pili Barberena (lehendakari orde), Felixa Mujika (diruzain) eta Edurne Ariztia (idazkari). Orain arte antolatutako ekintza martxoaren 24an sagardotegi batetara ateraldia izan da,

elkarren arteko harremanak bertze giro batean hurbildu nahian. Hemendik aintzinarakoz diren ideia batzuk ikastaroak antolatzea, hitzaldiak egitea eta bes-tetarako kafe-antzerkia ekartzea dira.

Ezkontza Zugarramurdin

Seguraski herri gehienetan ez da notizi handia izanen, baina Zugarramurdin ezkontza bat ospatzea sekulakoa da. Azkenekoa 1996ko abuztuan izan zen (Dolareko Maitere-na) eta martxoaren 25 arte ez dugu ezkontza bat ikusteko aukerarik izan. Egun hortan ezkondu zen Etxenikeako Urrutia familiko Madalena Elgorriaga. Nahiz eta bera Zugarramurdin ez bizi bere amaren herrian ezkondu nahi izan zuen.

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ☎ 948 580313
ELIZONDO

JATETXEA
☎ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

MENDIALDE Jatetxea
AMAIUR • ☎ 948453060

BAZTAN FUNERARIA
EHORZKETA ZERBITZUAK
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
TRASLADOAK
Menditurri, 1 • ELIZONDO • ☎ 948 580373 • 608 776176

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donztebe
MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

EZKONTZAK

Madalena Elgorriaga eta **Eugenio Botas**, Irun eta Ovidokoa, Zugarramurdin, martxoaren 25ean.

Martin Zabaleta Telletxea eta **Eder Gonzalez Leitza**, Leitzakoak, martxoaren 18an.

JAIOTZAK

Ane Iribarren Miguel, Goizuetakoa, martxoaren 19an.

Mikel Ballarena Telletxea, Elizondokoa, martxoaren 13an.

Patxi Martin Arregi, Doneztebekoa, martxoaren 20an.

Maite Latasa Berasategi, Iruñekoa, martxoaren 10ean.

Francisco Javier Bidaurre Telletxea, Igantzin, urtarrilaren 25ean.

HERIOTZAK

Inaxi Arizkorreta, Sarakoa, martxoaren 21ean, 82 urte.

Maritxu Larzabal, Sarakoa, martxoaren 21ean, 63 urte.

Vicente Korteia Irigoien, Azpilkuetakoa, martxoaren 16an, 83 urte.

Prudencia Ganboa Urroz, Sunbillakoa, martxoaren 18an, 95 urte.

German Castillo Cuetos, Berakoa, martxoaren 24an, 70 urte.

Visitaçión Ameztoui Elizaintzin, Iruritakoa, martxoaren 25ean, 89 urte.

Prudencio Ganboa Arretxea, Sunbillakoa, martxoaren 18an, 93 urte.

Pako Arretxea Mitxelorena, Sunbillakoa, martxoaren 25ean, 81 urte.

Mari Paz Almandoz Ibarra, Sunbillakoa, martxoaren 23an, 81 urte.

Jose Miguel Gartziaarena Perurena, Leitzakoa, martxoaren 24an, 61 urte.



Xabier LERTXUNDI

NI HILTZEAN
EZ ETORRI NEGAR EGITEN,
ASKATASUN HAIZEA
EZ BAITA LURPERATZEN.

ETXALARKO HIRE LAGUNAK

ETXALAR, 2000-03-20



Hilari ELIZALDE MUTUBERRIA

2000. urteko martxoaren 15ean,
95 urterekin hil zen Zubietan.

**LOYARTE-tar eta
MUTUBERRIA-tar FAMILIA**

Zubieta, 2000-03-15



Bidali

TTIPI-TTAPA

**herritik kanpo
bizi diren lagun edo
famiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak
ordaindu behar dira.


Eskatu informazioa.

☎ 948 631188

Munduko txirrindulari onenak Doneztebera ailegatuko dira apirilaren 6an

- Euskal Herriko Itzuliko etapa nagusiak Malerrekan barna 50 kilometro eginen ditu
- Biharamonean Doneztebetik abiatuko da Azkoitian akituko den etapa


Euskal Herriko 40. Txirrindulari Itzularen laugarren etapa –etapa nagusia– Doneztebera ailegatuko da, Gasteizen abiatu eta 199 kilometro egin ondotik. Apirilaren 6ko etaparen azken laurdena Malerrekan barna igaroko da. Bigarren mailako Gorostietako gainetik Saldiasera ailegatuko da, arratsaldeko 4ak aldera. Labaien, Beintza, Urrotz eta Oitzen barna Doneztebera jaitsiko da. Kider lantegiaren parean, 166. kilometroan, tarteko helmuga jarri dute. Hortik Elgorriaga, Ituren eta Zubieta aldera joko du tropelak, berriz ere Saldiasera igaiteko. Bigarren mailako gaina izanen dute Saldiasen, 181. kilometroan. Saldiaстик, berriz ere, lehengo bide hartuko dute Donez-



tebe aldera, 199. kilometroan jarri duten helmugaren bila. Antolaitzaileek pentsatutako ordutegi onenaren arabera arratsaldeko 5ak aldera ailegatuko dira eta ordu erdi beranduago txarrenaren arabera.

Biharamonean, goizeko 10etan abiatuko da bosgarren etapa Bordaxo aitzinetik, Azkoitiraino joateko. 105 kilo-

metro ditu etapa honek eta haserako 30ak eskualdean barna eginen ditu. Doneztebetik Ezkurra aldera joanen da eta 20. kilometroan hirugarren mailako Usategietako gaina izanen du (goizeko 10,30ak aldera ailegatuko dira). Hortik Leitzara joanen da eta Leitzatik Berastegi aldera, Urtoke gaina igaroko ondotik.



Doneztebera ailegatu baino lehen bortz mendikaxko igaroko dituzte txirrindulariek.

Amaia Lujanbio korrikalariak Nafarroako marka berria ezarri du 5.000 metrotan

- Lehengo junior kategoriako marka ia minutu terdian hobetu du goizuetarrak

Martxoaren 18an Barakaldon jokatu zen Euskadiko fondo txapelketan, Scania Pamplona Atletico taldean ari den Amaia Lujanbio korrikalari goizuetarrak 5.000 metroko Nafarroako errekor berri bat ezarri zuen junior mailan. Aitzineko marka, 18 minutu eta 55 segundu, xehetu zuen korrikalari goizuetarrak, 17 minutu, 28 segundu

eta 19 zentesima behar izan baitzuten bortz mila metroak egiteko. Gisa honetara, Nafarroako kategorian guziki hartuta inoiz egin den bigarren markarik onena lortu zuen. Eskualdeko bertze ordezkariak ere maila polita erakutsi zuten Barakaldon. Rafa Maritxalar laugarrena izan zen seniorretan 10.000 metroko proban eta Iñaki Miura arraiotzarrak hi-

rugarren izan zen gazte mailako 5.000 metroko proban.

Biharamonean burutu zen Lekunberriko 12. Legua eta bertan, Hiru Herri taldean ari den Rafa Maritxalar nagusitu zen, 78 partehartzaileen artean. Lesakarrak 18 minutu eta 54 segundu behar izan zituen sei kilometroak osatzeko. Korrikalariak haize gogor eta hotzari aurre egin

behar izan zioten. Probaren lehen zatian nahiko lasai joan ziren korrikalariak tropelean, baina bigarren zatian Maritxalarek aitzinera jo zuen. Zortzi segunduko aldea atera zion Antonio Etxeberriari eta hamabi segunduko Celestino Arangureni. Aingeru Mindegia leitzarra seigarren izan zen, 19 minutu eta 40 segunduko denborarekin.



Amaia Lujanbiok Nafarroan inoiz egin den bigarren markarik onena erdietsi zuen.

Igande honetan hasi da Baztan-Errekako XXI. laxoa txapelketa

- Hameka laukotek eman dute izena, gan den urtean baino bat gehiago
- Finala Doneztebeko Bear-Zana pilota plazan jokatu da abuztuaren 6an

Igande honetan hasi da Laxoa Elkarteak 21. urtez antolatutako Baztan-Bidasoako laxoa txapelketa. Aurten ere Bertiz Turismo Partzergoaren laguntza izanen dute eta bortz herriko hameka talde ariko dira, iaz baino bat gehiago. Elizondo, Arraioz, Oitz, Doneztebe eta Iruiritak aurkeztu dute beraien taldeak: Elizondok, bakarra, baina iazko partehartzea hobetzeko asmoarekin. Arraiozek, gan den urteko txapeldunekin batera bigarren talde bat aurkezteko asmoa baldin bazuen ere, azkenean Saldias, Mortalena, Gamio eta Karrikaburu izanen dira ordezkari bakarrak. Oitzek bi talde plazaratuko ditu, Bi-

ttor Zelaieta eta Sergio Fagoaga sakelariekin, bertzeak bertze. Doneztebe da talde gehien plazaratuko duena, aurten laugarren bat agertu baita. D talde horretan, Patxi Etxeberria erremon-telari ohia, Tiburtzio Arraztoa (laxoa eta paxaka txapelketak irabazi dituen munduko gantelari bakarra), Josu Juanena eta Juan Mari Artazkoz ariko dira. Iruiritak hiru talde plazaratu ditu aurten ere.

FINALA DONEZTEBEN
JOKATUKO DA
ABUZTUAREN 6AN

Hamabi talde hauek bi multzotan banatu dira: lehendabizikoan, Doneztebe D, Irurita A eta B, Elizondo eta Oitz A ariko dira. Bigarre-

nean, Doneztebe A, B eta C, Arraioz A, Irurita C eta Oitz B. Lehendabiziko fasea liga modura jokatu da eta multzo bakoitzeko lau lehendabizikoak sailkatuko dira final laurdenetarako. Eguraldiak laguntzen badu finala abuztuaren 6an jokatu da Doneztebeko Bear-Zana pilota plazan. Halere, herri bereko bi talde finalera ailegatuz gero, herri horretan jokatu litzateke finala.

Arraioz iazko irabazlea eta txapel gehien jaso dituen Doneztebeko talde nagusia dira faboritoak, baina aurten taldeen kopurua ez ezik kalidatea ere hobetu denez, ez da errega izanen txapelduna asmatzea.



Saldias, Mortalena, Gamio eta Karrikaburu arraioz-tarrek irabazi zuten gan den urteko txapelketa.

Argazkia: Mena

Joxe Mari Goia igantziarrak irabazi du Sunbillako lehen mendi bizikleta Bira

- Lehendabiziko proban garaile eta erlojuaren kontra laugarren izan zen

Joxe Mari Goia txirindulari igantziarrak irabazi zuen martxoaren 18 eta 19an Sunbillan burutu den lehendabiziko Mendi Bizikleta Bira. Sunbillako gazteek lehendabiziko urtez antolatutako bira hau bi probetan banatu zen eta guzira larogei bat txirindularik hartu zuten parte. Larunbatean, 25 kilometroko etapa burutu zen eta Joxe Mari Goia izan zen nagusi, Atarrabiako David Fernandez eta Ramon

Lekuonaren aitzinetik. Igandean, erlojuaren aurkako zortzi kilometroko proba burutu zuten, krono-igoera, eta Goia laugarrena izan zen, baina nahikoa izan zuen sailkapen orokorra irabazteko. Igantziarra gustora ageri zen Sunbillan egindako lanarekin: «Neguko pres-taketa ona egin dut eta ongi ikusi dut nere burua». Joxe Mari Goiak 22 urte ditu. Euskadiko txapelketa Irekian hamabosgarrena izan da.

Joan den udan entrena-tzaile batekin serio-ski hasi zen lanean igantziarra eta entrenamendu horien fruitua biltzen ari da. «Pisua jautsi dut, hobekiago entrenatzen dut eta karreratan aunitzez aisago aritzen naiz» dio Goiak.

Hamasei urtetik behetikoen sailkapena honela gelditu zen azkenean: lehendabizikoa Unai Maia izan zen, bigarrena Iker Villanueva eta hirugarrena Ander Villanueva.



Joxe Mari Goia igantziarra podiumeko lehen postura igo zen Sunbillako Biran. Arg.:Eduarne Zubieta

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

IRUÑEA

► Apirilaren 9an Oinarriak plataformak "lege berri baterantz" kanpainaren azken bes-ta antolatu du Iruñean. Bortziritetik honako or-du eta tokietatik ateriko dira autobusak:

- Bera (Eztegarako aparkalekua) 9etan.
- Lesaka: (suhiltzaileetan) 9,15etan.
- Etxalar (Bentan) 9,25etan.
- Arantza-Igantzi (Berrizaun) 9,30etan.

Izenemateko (apirilaren 6a baino lehen): Berako Errekalden, Lesakako okindegian edo telefono honetan: 948 634 125 (goizetan).

ZINEMA

LEITZA

► Apirilaren 7 eta 8an "Ghost Dog" Ostiraletan 10,30etan eta larunbatetan 7,30etan.

► Apirilaren 14 eta 15ean "East is east" Ostiraletan 10,30etan eta larunbatetan 7,30etan.

EMANALDIAK

LEITZA

► Apirilaren 14an Arratsaldeko 8,30etan, zineman Patagonia, Yosemite, Hego eta Ipar Amerikako irudiak Mendibil mendi taldearen eskutik. Iñaki Campion mendizaleak ateritako argazkiak izanen dira.

TELEBISTAKO TXOKOA

| APIRILAREN 5ETIK 7RA | | | | | |
|----------------------|------------------|------------------|------------------|--|--|
| | ASTEAZKENA | ORTZEGUNA | ORTZIRALA | | |
| 11:00 | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | | |
| 13:00 | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | | |
| 17:00 | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | | |
| 21:00 | Berriak | Berriak | Herriz Herri | | |

| MARTXOAREN 27tik MARTXOAREN 31RA | | | | | |
|--|--|--|--|--|--|
|  | | | | | |
|  | | | | | |

| APIRILAREN 10ETIK 15ERA | | | | | |
|-------------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|
| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | ORTZEGUNA | ORTZIRALA |
| 11:00 | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) |
| | Herriz-herri | | | | |
| 13:00 | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) |
| | Herriz-herri | | | | |
| 17:00 | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) |
| | Herriz-herri | | | | |
| 21:00 | Berriak | Berriak | Berriak | Berriak | Berriak |
| | Etxalarako Feria | | | | |
| | Jokoa Solas | | | | Herriz-herri |

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 7.700 pla.
- **Zerri gizona** (95-100): 1165 pla./kiloa.
- **Zerramak**: 85-90 pla./kiloa, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
 - **Idixkoak:** Pta/kg. Kanal
Extra560
1.koa540
2.koa510
 - **Urruxak:** Pta/kg. Kanal
Extra570
1.koa550
2.koa520
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):
 - **Nabarrak:** urruxak 15.000 eta idixkoak 28.000 Pta.
 - **Mestizoak:** urruxak 30.000 eta idixkoak 45.000 Pta.
 - **Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

Liburuak



«Grimm anaien ipuinak»

Genaro GOMEZek itzulia
Pamiela

Jacob Grimm (1785-1863) eta Wilhelm Grimm (1786-1859) anaiek Alemaniako literatura eta filologiaren barrenean aintzazko tokia izan dute beti, ongi me-rezia gainera. Amaigabeko ipuin-bildumak idatzi zituzten, eta horretaz gain, gramatika bat egin, hiztegi erraldoi bat osatu eta hainbat elezahar ere bildu zituzten Alemaniako hizkuntzaren geroa eta jarraipena helburu. Euskarazko bilduma hau osatze-

ko Genaro Gomez bizkaitarrak itzuli ditu 62 ipuinak –aski txukun itzuli ere–, hoiere arteko zenbait ipuin Edurnezuri, Hansel eta Gretel edota Txanogorritxo bezain ezagunak. Haur ttikiei kontatzeko ipuin mitikoak biltzen dira liburu honetan, baina baita beraiek irakurtzeko modukoak ere. Gainera, Otto Ubbelohde eta Josemi Goyena nafarraren marrazki andana bat ageri da ipuinak ilustratuz.


JAKIN BEHARREKOAK

Zentral hidroelektrikoak

Erreka eta ibaien ura k. a. l. mendetik erabiltzen da energia-iturri moduan. Erdi Aroan energia hidraulikoa industrializazioaren oinarri izan zen.

Gaur egun, ordea, energia hidraulikoa elektrizitatea lortzeko erabiltzen da nagusiki (energia hidroelektrikoa), horretarako, presa edo urtegia bildutako ura turbina batean zehar pasazazita. Turbina horrek alternadoreak higiarazten ditu eta ondorioz uraren energia zinetikoa energia elektriko bihurtzen da. Ur-kantitatea eta uraren abiadura zenbat eta handiagoak izan, are elektrizitate gehiago ekoiztuko du zentralak. Jarritako potentzia 5.000kV-tik beherakoa denean Zentral Hidroelektriko Txiki edo Minizentral Hidroelektriko deitzen zaie. Horieta-koak dira, hain zuzen, Euskal Herriko gehienak.

Euskal Herrian XIX. mendean enpresa askok euren zentrala eraiki zuten energia elektrikoa eskuratzeko. Baina 60ko hamarkadatik aurrera zentral hidroelektriko txikiak egiteari utzi eta martxan zeuden asko itxi egin zituzten. Azken urteotan, ordea, petrolioaren krisiak, eta, neurri batean, energia alternatiboen bultzatza-



Petroleoaren krisiak berriro lanean jarri ditu hainbat zentral.

dak zentral txiki horietako hainbat eraberritu, automatizatu eta berriro ere lanean jarri ditu.

ZENTRALEN ABANTAILAK

Hidroelektrizitateak abantaila handiak ditu. Batetik, energia-bihurketaren etekina oso handia da, eta bestetik, eragin ekologiko kaltegarria txikia da. Hala ere, kalte ekologikoak egon badaude; izan ere, zentral hidroelektrikoek arrainen migrazioa eta ibaian

behera elikagaiak behar bezala garraiatzea oztopatzen dute. Ibaiaren dinamika aldatzen dute. Presa txikien ordezturtegiak daudenetan, horiek eraikitzeak, bistan denez, aldaketa itzelak sortzen ditu. Dena den, energia eskuratzeko modu sinpleena eta merkeena izanik, energia-iturri berri-erriagarrietan hidroelektrizitatea erabiliena da.

**ELHUYAR
ZIENTZILARI ELKARTEA**

AGENDA EGUNEZ EGUN

KONTZERTUAK

BERA

- ▶ Apirilak 7 «Las Brujas». Arratseko 10etan Pui ostatuan.
- ▶ Apirilak 14 «Bol». Arratseko 10etan Pui ostatuan.

OIARTZUN

- ▶ Apirilak 7 «Electrofun» Minimal funk taldea.
- ▶ Apirilak 8 Marcia Maria Quintet Brasiletik.
- ▶ Apirilak 14 «Etsaiak»
- ▶ Apirilak 15 Avalanch
Pagoa garagardotegia.

ELIZONDO

- ▶ Apirilaren 7an «Iguana y los jumiles». Arratseko 10etan Kasino ostatuan.
- ▶ Apirilaren 14an «No Toxic Pipe». Arratseko 10etan Kasino ostatuan.

ERAKUSKETAK

ETXALAR

- ▶ Aste Santurarte Herriko Ostatuan, Zentral Hidroelektrikoei buruzko margo erakusketa.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfñora. deitu behar da

- ▶ Apirilaren 3tik 9ra Bera, NARBARTE, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.
- ▶ Apirilaren 10etik 16ra Lesaka, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.
- ▶ Apirilaren 17tik 23ra Igantzi, Sunbilla Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

DISKAK



«Euskal ska eta reggae»

BILDUMA

SKUNK DISKAK

Hendaiako Skunk Diskak katalogoaren eskaintza berria duzu hau: Euskal Herrian lehen aldiz egiten den ska eta reggae bilduma. Azken boladan Jamaikako musikak gero eta jarraitzaile gehiago dituela ohartuta, Hegoalde nahiz Iparraldeko 18 talderen abesti bana biltzea erabaki dute. Hoiere artean hainbat talde ezagun ikus daitetzke, batzuk dagoeneko mitiko bihurtuak –Negu Gorriak,

Baldin Bada...-. Bertze batzuk, ordea, orain loratzen ari diren talde freskoak ditugu: Ttak, Dela Daube, Skalariak... Baina taldeak aunitz baldin badira, proiektu honetan parte hartu duten disketeak ere ia bertze hainbertze direla erran behar da. Euskal Herrian baina eta bertze herrialdeetan ere banatuko da diska hau, hemen-go ska-reggae mugimenduari berri izan dezaten.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).
1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/geltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

ADOS

- BERA. Bi pisu eta bi apartamentu salgai. Giltzak maiatzean emanen dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

GOIZUETA. Pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldaria eta komuna. Garaje handia. ☎ 948 514 213.

LESAKA. Pisua salgai. ☎ 948 637 264 (Rosa).

BERA. Pisua salgai Legia karrikan. Garaje plaza badi. Aszensorea eta kalefakzioa. ☎ 948 631 081 (arratsaldeko 7etatik aitzinera).

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

BERA. Etxe bat edo pisu bat hartuko genuke errentan maiatzerako. ☎ 948 256 359 (Perez Mendoza).

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

BERA. 50 m²ko bajera salgai. Erakustoki zabala, altura ederra eta leku oso ona. ☎ 948 631 007.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

SARA. 800 m²ko gordelekua errentan emateko. Nahi diren m² alokatzen ahal dira: 400 pta m²a. ☎ 00 33 559 54 28 06.

LURRAK/ORUBEAK

112 SALDU

ADOS

IRURITA.
- Lur eremu eraikigarria salgai.

☎ 948 451 841
607 978 656

LEITZA. Borda eraikitzeko lur-eremua salgai. ☎ 649 476 615.

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

arantza
ZurginDegia
Jose Miguel Errandonea
Klase guzietako
zurgin lanak
Osina auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

LANA

302 ESKAINTZAK

☎ 948 13 11 36

LODITASUNA?

96 pertsona behar ditugu pisu kontrolaren programa berri bat frogatzeko. Belarren bidez eginen da.

Neska bat behar da Aste Sainduan Urdazubiko jate-txe batean lan egiteko, ortziraletik igandera. ☎ 948 599 222.

Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko igandetan eta udan. ☎ 948 630 734.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Fiat Punto Sporting autoa salgai, NA-4278-AU matrikuladuna, extrekin. Bi urte terdi eta 52.000 km. ditu. ☎ 670 415720.

Volkswagen Golf 3i, GTI 2.0, 16 balbula, 6 urtekoa. Extrak. 1.500.000 pta. ☎ 948 637 504.

Renault 7 salgai. NA-E, 44.000 km. ITV pasatua iraila arte. ☎ 948 630 375 (gauz).

Opel Kadett GSI 2.0i salgai. 5 ate, xuria, SS-AB. Egoera onean. ☎ 656 411 748.

PUBLIZITATE AGENZIA

Diario de Navarra

gara

Noticias

EL DIARIO VASCO

EUSKAD


COPE

Zure publizitatea egunkari, irati edo telebistetan agertzeko

informazioa:

☎ 948 63 11 88

E-Posta: kulturkari@euskalnet.net



KULTURKARI

publizitatea zerbitzuak



Arrisku merkantzien ikastaroa

Plaza mugatuak

Informazioa: Elizondoko Elkar eta Doneztebe eta Lesaka autoeskoletan

☎ 948 580077

☎ 948 451929

☎ 948 637870

Renault Clio 1.8i salgai. NA-AM. 60.000 km. Estrak. ☎ 666 419 045.

Seat 124 salgai. 18.000 km, beti garajea kontua. 50.000 pta. ☎ 948 450 103 (arratsaldetan).

Aluminiozko **4 llanta** salgai. 5 makilekoak. 185/60 eta R-14. Merke. ☎ 948 630 280 (13etatik 14etara).

Montesa Cota 335 salgai. ☎ 948 510 294.

Yamaha YZ 250ekoa salgai. Egoera onean, 97an eresia. Prezio negoziagarria. ☎ 649 853 189.

MOTORRA

502 TAILERRAK

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

C-15 D, 306 D, Express D eta gasolina, 205 GT, Corsa D, Lada Niva, R-19 D.

SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

GANIX Tailerrak

Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

Behi bat salgai, limosina, 2 urtetik 3 urtera doana. 5 hilabete ernari. ☎ 948 637 327.

ANIMALIAK

603 KLINIKAK

ALBAITERITZA KLINIKA

Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak

☎ 948631362 • Lege 13 • BERA



DENETARIK

701 GALDU-AURKITUAK

Lesakako inauterietan **giltzaria** galdu nuen, 4-5 giltzarekin. ☎ 948 637 745.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Belar bola batzuk salgai. ☎ 948 453 110 (edozein ordutan).

Lakuntza-7 markako **egurrezko sukaldea** salgai. Egoera onean. ☎ 948 637 885.

Sukalde-kalefaktorea salgai. Hergon markakoa, txuria. ☎ 948 450 750.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Arraiozko Aitziber Mindegari zorionak apirilaren 4an 15 urte bete dituelako. Zorionak kuadrilaren partetik eta kontuz irri aunitzgabe, txarra da eta.

San Roke karrikako arraioztarrari: goraintziak eta eutsi goiari! Bidasoako azkeneko izokina.



BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNIDADEA

1999ko kontuen hasierako onespina
2000ko aurrekontuaren hasierako onespina
2000ko plantila organikoa

Bortzirieta Euskara Mankomunidadeak, 2000ko otsailaren 21ean egindako bileran, 2000ko plantila organikoa onartu zuen eta 1999ko kontuak, 2000ko aurrekontua eta exekuzio oinarriak hasiera batean onestea erabaki zituen.

Espedientea jendaurrean egonen dira 15 egunez, interesatuek aztertu eta egoki juzkatzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

Arantzan, bi milako martxoaren 27an. Mankomunidade Burua, Jose Ramon Amoros Oskoz.

Arantzan, 2000ko martxoaren 27an.

MANKOMUNIDADE BURUA,
Jose Ramon AMOROS OSKOZ



BORTZIRIETAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNIDADEA

«Gizarte Enplegu Babestua» proiekturako langile bat kontratatzeko deialdia

Bortzirieta Gizarte Zerbitzuen Mankomunidadeak, langile bat kontratatu nahi du «Gizarte Enplegu Babestua» proiektua eraman dezan. Kontratuaren iraupena 10 hilabetekoa izanen da.

Baldintzak:

- «Ciencias Sociales» delakoekin harremanak dituzten profesionalak aurkezten ahal dira, hau da, gizarte langileak, edukatzaileak, psikologoak, pedagogoak eta gizarte egokitzapenerako teknikariak.
 - Euskalduna.
 - Kotxe eta karneta izan behar ditu.
- Interesatuek eskaera eta kurrikuluma aurkeztu beharko dituzte apirilaren 19ko eguerdiko 12ak baino lehen Etxalarko Mankomunidadeko bulegoetan.

Deialdiaren gainontzeko baldintzak interesatuen eskura daude Mankomunidadeko Idazkaritzan.

Etxalarren, 2000ko martxoaren 29an.
PRESIDENTEA, Migel Mari IRIGOIEN SANZBERRO

ANIMALIAK

601 OPARI EMATEKO

Zakurkumeak opari ematen nituzke, etxea zaintzeko egokiak. ☎ 948 635 182.

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Paumak (pabo realak) salgai. ☎ 948 630 140.

Setter arrazako zakurkumeak salgai. ☎ 609 824 624 (goizeko 9etatik 2etara).

Grifon eta **Sabueso frantziarrak** salgai, 2 hilabete koak. ☎ 948 387 098.

Bidali TTAPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.



☎ (+34) 948 631 188

URTEBETETZEAK


Argazkiak berreskuratzeke, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:

Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.



Jokin Pinatxo Olaziregi beratarrek martxoaren 19an 4 urte bete ditu. Aunitz urtez etxekoan partetik. Aupa txapeldun!



Jone Zelaieta Lazkanok 11 urte beteko ditu apirilaren 6an. Zorionak eta musu handi bat zure familiaren partetik. Aupa Erreal!



Ane Pacheco San Julian beratarrek apirilaren 2an urtea beteko du. Zorionak familiaren partetik.



Ander Jaurena Petrirena elizondarrak 2 urte beteko ditu martxoaren 30ean. Zorionak eta musu handi bat. Lesakako familia.



Ugaitz Larralde beratarrek urte bat egin du apirilaren 4an. Zorionak Asier, Nagore, Aritz, Oier eta Xubanen partetik.



Iratxe Labianok 10 urte bete ditu martxoaren 28an. Zorionak bere guraso, ahizpa, ataxi, amatxi eta Lentejoren partetik.



Aritz Telletxea lesakarrak martxoaren 27an 10 urte bete ditu. Zorionak bere guraso eta Ikeren partetik.



Ylenia Seijas Duartek urtea beteko du martxoaren 30ean. Zorionak familia guziaren partetik. Aupa sorgintxo!



Ainhoa Errandonea beratarrek apirilaren 4an 12 urte bete ditu. Zorionak kuadrilaren partetik. Ongi pasatu zure urtebetetze egunean.



Maria Lasaga beratarri zorionak martxoaren 28an 12 urte beteko dituelako. Zorionak kuadrilaren partetik. Zirika.



Eneko Santesteban Grajirena zubietarrak martxoaren 29an beteko ditu 7 urte. Zorionak familia guziaren partetik.



Ane Anso zubietarrak apirilaren 8an eginen ditu 2 urte. Zorionak aita, ama eta Yuamariako familiaren partetik. Muxu bat.



Zorionak Elizondoko Xabier Danborienari martxoaren 23an urteak bete dituelako. Muxu goxo bat Berroetako familiaren partetik.



Julen Saldias Murillo legasarrak 2 urte bete ditu martxoaren 27an. Zorionak eta muxuak aita, ama, Javier eta familiaren partetik.



Eneko Rekarte eta Izaskun Rekartek 8 eta 3 urte beteko dituzte apirilaren 8 eta 16an. Zorionak aita eta amaren partetik.



Beñat Leiza Garrido doneztebarrak 6 urte bete ditu apirilaren 2an. Zorionak eta musu handi bat familiaren partetik.



Amaia, Josu eta Eneko. Argazkian Itallak zineten, orain 8, 5 eta 3 urte baduzue. Zorionak Iraizotz eta Elizondoko amatxi eta osaba-izeben partetik.



Laura Zaldúa Vicuña doneztebarrak 10 urte beteko ditu apirilaren 14an. Aunitz urtez eta egun ona pasa M'Jose, Daniel eta Eloyren partetik.



Ibon Irazoki Petrirena lesakarrak urte bat beteko du apirilaren 18an. Zorionak eta musu haundi bat gure potxolori.



Oihana Abuin lesakarrak apirilaren 5an 14 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik eta musu bat.



Daniel Pio García Otxandorenak 6 urte beteko ditu apirilaren 6an. Egun ona pasa, guraso, Eloy eta Eratsungo familiaren partetik.



Denis Leiza Pereirak 3 urte beteko ditu apirilaren 18an. Zorionak aita, ama, izeba eta amatxiren partetik.



Olatz Etxepare Elrio lesakarrak apirilaren 3an bete du urte bat. Zorionak Egoitz, Aritz, Oier, Unai, Inigo eta Jaioneren partetik. Aupa fuskurruti!



Itziar Iturria irundarrak 27 urte beteko ditu apirilaren 13an. Muxu handi bat gure kuadrilakoan partetik.



Joseba Pika-bea Mitxelena beratarrek 3 urte bete ditu martxoaren 31n. Zorionak aita, ama eta Eideren partetik.



Sonia Petrirena Vaquero elizondarrak eta Ibon Irazoki Petrirena lesakarrak urteak beteko dituzte apirilaren 4an eta 18an. Soniak 26 beteko ditu eta Ibonek bat. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



Parisko Adrieli Irazokik urteak beteko ditu apirilaren 8an. Zorionak eta musu handi bat.



Beñat Iparra-girre Olasagasti etxalartarrak apirilaren 5ean beteko ditu 4 urte. Zorionak Jon, aita eta amaren partetik.



Urdazubiko Unai eta Aitor Etxart eta Iraia Jaurenari zorionak eta musu handi bat 11, 9 eta urte bete dituztelako.



Jon Mazizior eta Itziar Mitxelena arantzarrak apirilaren 7 eta 16an 4 eta 9 urte beteko dituzte. Zorionak familiaren partetik.



Mari Huesok apirilaren 2an bete ditu urteak. Zorionak Nahike eta Shailaren partetik.



Jaione Elizagoien Elizegi elizondarrak martxoaren 31n beteko ditu 9 urte. 9 muxu bere familiaren partetik. Zorionak!



Jone Jauregi Arozarena amaizarrak 9 urte beteko ditu apirilaren 9an. Zorionak eta musu handi bat familiaren partetik.



Alvaro Perez Aragon eta Ander Oskoz Gago doneztebarrak apirilaren 11 eta 12an 6 urte beteko dituzte. Zorionak eta musu handi bat familia guziaren partetik.



Itziar Altzugarai Alvarez lesakarrak apirilaren 11n beteko ditu 5 urte. Zorionak familiaren partetik.



Urdazubiko Unai eta Aitor Etxart eta Iraia Jaurenari zorionak eta musu handi bat 11, 9 eta urte bete dituztelako.



Beñat Iparra-girre Olasagasti etxalartarrak apirilaren 5ean beteko ditu 4 urte. Zorionak Jon, aita eta amaren partetik.



Jon Mazizior eta Itziar Mitxelena arantzarrak apirilaren 7 eta 16an 4 eta 9 urte beteko dituzte. Zorionak familiaren partetik.



Leire Zabalo Khaya leitzarrak 4 urte beteko ditu maiatzaren 6an. Zorionak aita, ama eta ahizparen partetik.



Leire Zabalo Khaya leitzarrak 4 urte beteko ditu maiatzaren 6an. Zorionak aita, ama eta ahizparen partetik.



Joxe, Aitor eta Mikel igantziarrek martxoaren 14ean eta apirilaren 2 eta 8an beteko dituzte urteak. Aunitz urtez. Suecoarentzat berando, bertzintzat tenorez, azkenin alletu ttuk argazki ttipi-ttapa. Bi afari ederren esperun gadezik. Kuadrila.



Jon Mazizior eta Itziar Mitxelena arantzarrak apirilaren 7 eta 16an 4 eta 9 urte beteko dituzte. Zorionak familiaren partetik.



Leire Zabalo Khaya leitzarrak 4 urte beteko ditu maiatzaren 6an. Zorionak aita, ama eta ahizparen partetik.



Leire Zabalo Khaya leitzarrak 4 urte beteko ditu maiatzaren 6an. Zorionak aita, ama eta ahizparen partetik.



Leire Zabalo Khaya leitzarrak 4 urte beteko ditu maiatzaren 6an. Zorionak aita, ama eta ahizparen partetik.



Sarrera BERAtik da
Alkaiagako industrialdean
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443



Tapadun bankua



Aitzinera irekitzen den kutxa



GAURKO
artisautza,
BETIKO
estiloa

Haritzez
egindako
altzari
trinkoak

4.000m²ko
erakusketa
mobleak ikusteko

Larunbat arratsaldetan irekia



Ezkongaien Feria *Bidasoa 2000*



Apirilak

9

Igandea

Ordua

11etatik 2etara eta
4,30etatik 8,30etara

Erakusketa

Moda desfileak

Opari zozketak

Musika

Partehartzaileak

Geca

M^a Nieves

Zinnia

Yoan

Maldaerreka

Bortzirudi

Zaldua

Segura Viudas

Kulturkari

Bodegas Irache

